

Herritarren ahotsak

Transmisioa ikasgelan

Euskara eta Literatura

3



Gida didaktikoa

DBH 3 eta 4

Badihardugu Elkarte

Otaola hiribidea, 1
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 12 17 75

Edukia:

SARRERA.....	3
HELBURUAK.....	5
EDUKIAK.....	9
Eduki multzoak.....	9
Gai nagusiak.....	16
NOIZ ETA NOLA ERABILI.....	24
PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK.....	30
1. Gaia: Autobiografia. Ahozko testu-generoak.....	30
2. Gaia: Ahozko baliabideak: farolari eta gauzain. Ahozko testu-generoak.....	37
3. Gaia: Betiko kanta-jolasen transmisioa. Ahozko literatura.....	45
4. Gaia: Bertsolaritzaren garapena. Ahozko literatura.....	50
5. Gaia: Euskara ikasteko prozesua. Euskararen aberastasuna.....	55
6. Gaia: Euskalkiak hezkuntzan eta hedabideetan. Euskararen aberastasuna.....	60
7. Gaia: Euskalkiak eta umorea. Euskararen aberastasuna.....	66
8. Gaia: Euskararen kontrako neurriak. Euskararen historia.....	73
9. Gaia: Euskararen transmisioaren etena. Euskararen historia.....	80
10. Gaia: Gerraosteko ikastola klandestinoak. Euskararen historia.....	86
11. Gaia: Euskal kantagintza berria. Euskararen historia.....	92
12. Gaia: Antzerkia: tradizioa vs modernotasuna. Euskararen historia.....	99
ESPAZIOEN ANTOLAKETA.....	106
DENBORALIZAZIOA.....	107
MATERIALAREN EGILEAK.....	109
BIBLIOGRAFIA.....	110



SARRERA

Gure ikasmaterialak Euskal Herriko Ahotsak www.ahotsak.eus proiektuan bildutako ahozko ondarea dauka oinarri gisa. Euskarazko testigantzak. Gehienbat adinekoenak, baina baita gazteenak ere. Lehenaldia eta oraina lotuz, gure asmoa belaunaldien arteko hurbilketa egitea da. Jakintzen eta kontatzeko moduen transmisioa egitea, ahozko jardunaren bitartez.

“Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektuaren barruan Euskara eta Literatura irakasgaiari heldu genion iaz, eta DBHko 2. eta 3. mailatarako 12 proposamen pedagogiko prestatu genituen. Gure ikasmateriala ahozkoatasuna lantzeko oso erabilgarria dela ikusi dugu eta oraindik gai asko daudela jorrazteko iruditzen zaigu. Euskara eta Literatura irakasgaia da gure indargune nagusia, Ahotsak proiektuaren helburu behinena tokian tokiko euskara jaso eta zabaltzea baita. Elkarrizketa guztiak euskaraz egiten ditugu, eta, beste hainbat gai jorratzearekin batera, elkarrizketatu guztiei —gazte zein adineko— galdetzen diegu euskarari buruz. Beraz, ikasgai horretarako aproposak diren gai ugari ditugu bilduta.

Hori ikusirik, aurten ere **Euskara eta Literatura ikasgairako 12 proposamen pedagogiko** berri egin ditugu, oraingoan DBHko 3. eta 4. mailatarako, ahozko ondarea jorratzen jarraitzeko. Lau ataletan banatuta daude: ahozko testu-generoak, ahozko literatura, euskararen aberastasuna eta euskararen historia. Aurrera begira ere, aurretik ikasgai horretarako prestatutako ikasmateriala osatzen joateko asmoa dugu, maila guztietarako materiala sortuta.



Zer du berezitik gure ikasmaterialak? Ahozkoatasuna dauka abiapuntu eta helburu gisa. Eta Curriculumean ahozkoatasunari garrantzia handia ematen bazaio ere, askotan idatzizkoa gailentzen da ikastetxeetan. Ahozkoatasuna lantzeko ereduak falta dira, eta guk baditugu. Ahozkoatasunak naturaltasuna esan nahi du, adierazkortasuna, eta agerikoa da gaztetxo askok premia hori dutela, erdarara jotzeko duten joera ikusita. Hizkera formala eta informala, biak lantzeko proposamenak egin ditugu, euskarari freskotasuna eta adierazkortasuna emateko, sormena lantzeko, eta azken batean, euskararen ahozko erabilera sustatzeko. Umorea da horretarako erabili dugun tresnetako bat. Besteak beste, euskalkien balioa nabarmen geratuko da, ikasleen nortasun kolektiboa eta indibiduala garatzeko garaian. Identitateari dagokionez, esan dezakegu ikasmaterialak Curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko balio duela, euskal mundu-ikuskeraren erakusgarri den heinean.



Herriaren jakinduria, jakintza kolektiboa. Hori da beste ezaugarrietako bat. Eskolako liburueta presentzia gutxi izaten duen gehiengo baten ahotsa da gure ikasmaterialaren ardatza; herri baten izatearen lekukotasuna, azken batean. Duela gutxi arte, transmisioa etxeko sukaldean egiten zen. Azken belaunaldietan ez, bizimodua goitik behera aldatu baita: teknologia berrien aroan murgilduta bizi gara, etorkizunari begira. Iraganik izango ez bagenu bezalaxe. Gaur egungo bizimodua, baina, ez da ezerezetik sortutakoa. Egungo gizarteko barne-egitura, balioak, bizimodua, arazoak, pentsaera... gizartearen bilakaeraren ondorio dira. Nondik gatozen jakin behar dugu, nora goazen jakiteko. Ahotsak.eus-en milaka testigantza ditugu jasota, adinekoen ahotik batik batik. Gure ikasmaterialaren helburua horixe da: herri jakinduria hori ikastetxeetara eramatea, teknologia berriak erabilia eta modu erakargarrian.



Ikasmaterial osagarri digitala da gurea, Curriculuma aintzat hartuta sortua; ikasgelan erabiltzeko eta irakasleari begira egina, eta ez inondik egokitua. Irakasleen autonomia errespetatzen du, irakasleek nahierara erabil eta molda ditzaketen proposamenak egiten baititugu. Lizentzia librearekin banatzen da eta ikastetxe guztien esku dago <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> webgunean. Euskal Herriko ikastetxe guztietan erabiltzeko modukoa da, interes orokorrekoa. Halaber, erabiltzeko erraza da, intuitiboa, bilaketa mailaren, ikasgaiaren eta gaiaren arabera egin daitekeelako: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/>. Diseinu erakargarria du. Eta berdintasuna aintzat hartzen du, bai gaiak aukeratzean, bai proposamen pedagogikoetan.



Betiko kanta-jolasen transmisioa



Euskal kantagintza berria



Euskalkiak eta umorea

HELBURUAK

Gure ikasmateriala DBHko 3. eta 4. mailako irakasle eta ikasleei dago zuzendua, eta Euskara eta Literatura irakasgaiarekin dago lotuta.



EIMA 2.0. deialdiaren baldintzei dagokienez, proiektu honek honako baldintzak betetzen ditu:

- Euskara hutsean sortutako ikasmateriala digitala da (4.1. artikulua).
- Creative Commons lizentziarekin argitaratzen da (3.1. artikulua).
- Arlo hauetara zuzenduta dago (2. artikulua):
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako material osagarria da.
 - Curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko material osagarria da.
 - Aniztasunari erantzuten dio.

Proiektu honen helburua ahozkoitasuna lantzea da. Berebiziko altxorra daukagu jasota Ahotsak.eus proiektuan. Testigantza horiek euskarazkoak eta ahozkoak dira guztiak. Zer esaten duten eta nola: edukiz nahiz formaz dira baliagarriak. Gure egiten dugu eskola curriculumetan (175/2007 eta 23/2009 Dekretuak) egoera ezberdinetan komunikatzen ikasteari ematen zaion garrantzia eta ahozko hizkuntzari buruz esplizituki esaten dena, bai hizkuntzen irakaskuntzaren helburu gisa izan behar duen lekuari buruz zein beste materien garapenerako tresna moduan duen garrantziari buruz.

Ahozkoitasuna lantzeko irakasgai guztiak izan daitezke egokiak. Hori bai, Euskara eta Literatura iruditzen zaigu aproposena, ahozkoitasuna hizkuntzaren irakaskuntzaren barnean dagoelako. Ahozkoitasuna ez da behar beste lantzen, gure ustez, eta hori izango da gure ekarpen nagusietako bat. Ikasleei giltza batzuk ematea egoera komunikatibo bakoitzari dagokion testuinguruaz jabetzeko; lagunarteko hizkera ez formaletan moldatzeko estrategiez jabetzeko, besteak beste.

Ahozkoitasuna lantzeko aukeraz gainera, gure lehengo eta oraingo gizartea barrutik ezagutzeko hainbat giltza ematen dituzte adinekoek. Eta haien testigantzek hausnarketarako bidea zabaltzeko balio dute, ikasleak euren kabuz ondorio batzuetara hel daitezten, talde-lanaren laguntzaz. Nagusien hitzei balioa emateko, denen iritzia entzuteko eta errespetuzko harremanak lantzeko ere balio du.

Ikasleek errealitatea kritikoki epaitzen laguntzen duten balio-printzipioak landuko dituzte, eta hori era autonomoan, arrazoizkoan eta elkarriketaren bidez egin dezaten balioko dute gure bideoek eta proposatzen ditugun jarduerak. Gure ikasmaterialak pentsarazteko balioko du.

Halaber, gazteen testigantzak ere baliatu ditugu, eredu moduan balioko dutenak, hitz egiteko erarengatik ez ezik, baita azalpen interesgarriak emateko eta euren iritzi propioa adierazteko gaitasuna dutelako ere.

Legezko Xedapenen testuinguruan, Curriculumean jasotako helburuekin bat etorriko da gure ikasmateriala, bai helburu orokorrekin eta baita irakasgaiko helburu zehatzekin ere. Helburu orokorrei dagokienez, Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak beteko ditu (175/2007 Dekretua):

- a) *Ikasleak prestatzea pertsona helduen bizitzari ekiteko; gizarteko herritar aktibo izateko; eta izadiaren zaintzarekiko eta garapen iraunkorrekiko konpromisoa duten pertsonak izateko.*
- b) *Ikasleek euskal kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko elementuak eskuratu ditzaten lortzea.*
- c) *Ikasleekin sentsibilizazio-lana egitea eta haiek gaitzea bizitzan zehar etengabe ikasteko gai izan daitezen.*



Oinarrizko hezkuntzaren helburu orokorrak, 175/2007 Dekretuan zehazten direnak, ere helburutzat hartu ditugu: arduraz bizitzen ikastea, ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, ikaslearen giza alderdiak garatzen ikastea eta egiten eta ekiten ikastea. Helburu horietako azpiatal guztiak izan ditugu kontuan, eta bereziki hauek:

“Ikasten eta ikasten pentsatzen ikastea” ataletik:

a) *Modu koherentean eta kritikoan pentsatzen ikastea, eta ohiturak hartzea diziplina, esfortzua, erantzukizuna eta lan eta ikasketa indibidualerako eta taldekakorako teknikak lantzeko, hala, ikasketarekin lotutako eginkizunak eraginkortasunez egiteko eta norberaren garapenerako bitartekoak eskuratzeko. Horrek guztiak bultzatu egin behar du nork bere buruan konfiantza izatea eta ikaslearen sen kritikoa, ekimena, jakin-mina, interesa eta sormena.*

“Komunikatzen ikastea” ataletik:

a) *Zuzen, egoki, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta adieraztea euskarazko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeko, errealitatea interpretatzeko eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko. Literatura irakurtzeari, lantzeari eta aztertzeari ekitea. Hizkuntzetarako Europako Marko Komuneke B2 maila izango da esparru horretako erreferentzia.*

c) *Ikaslearen bizi-inguruneko errealitate soziolinguistikoa ikuspegi kritikoz interpretatzea, eta hizkuntzak sortzeko eta garatzeko eta hizkuntzen arteko harremanak finkatzeko faktoreak zein diren jakitea. Hizkuntzen aniztasuna errespetatzea eta aniztasun hori herrien eta gizabanakoen aberastasun eta eskubidetzat hartzea, interesa eta errespetuzko jarrerak izateko eskubide horren erabilerarekiko eta hizkuntza-normalizazioko prozesuekiko.*

d) *Informazioko teknologiak eta komunikabideak erabiltzea ikasteko eta jakintza berriak eskuratzeko prozesuan, betiere, hartutako eta sortutako mezuekiko ikuspegi kritikoa izanda.*

f) Hitzeko hizkuntza eta arte-, matematika- eta zientzia-hizkuntzak interpretatzea eta modu aktiboan eta kritikoan erabiltzea, komunikazio-ekintza zehatzak egiteko, azalpenak eta arrazoiak emateko, eta norberaren, gizartearen eta izadiaren errealitatea egoki irudikatzeko.

“Elkarrekin bizitzen ikastea” ataletik:

f) Euskal herritartzat izatea norberaren burua, kultura askotariko ingurunean, eta balioa ematea euskal hizkuntza eta kulturari edota norberak berezko eta erreferentziako dituenek; hala, ikasleak, identitate anizkunei erreparatuta, nortasun propio bat eraiki behar du, modu inklusiboan. Horrek guztiak erreferentziako marko komun bat eraikitze bide eman behar du, pertsonen arteko diferentziak errespetatu eta bizikidetzaz erraztuko duena.

g) Euskal Herriko kulturaren eta historiaren oinarritzko alderdiak eta arte eta kultura ondarea ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, eta xede horiek betetzea gainerako kultura eta gizarteekiko. Kultura eta sozietateen funtzionamenduko mekanismoak eta balioak aztertzea, batik bat, herritarren eskubideei eta betebeharrak dagozkienak, haiek ikuspegi kritikoaz aintzat hartzeko eta haiekiko iritzi eta irizpide pertsonalak izateko.



Bidenabar, UNESCOren «XXI. menderako ikastea» programak etorkizuneko hezkuntzarako finkatutako lau oinarriak gure egingo ditugu: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea.

Helburu didaktiko zehatzagoei begira, esan DBHn «Euskara eta Literatura» irakasgaiak hainbat gaitasun lortzea duela helburu. Horietako asko gure ikasmaterialaren bidez lor daitezkeela uste dugu.

Honakoak lirarteke:

1. Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoaz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.
2. Ahoz eta idatziz, esan-idatziak egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta solasteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza-arauak kontuan izan behar dira, komunikazio-premia bakoitzari eraginkortasunez erantzuteko.
3. Soziolinguistikako oinarritzko ezagutzen laguntzaz, gure errealitate elebiduna ezagutzea eta interpretatzea, euskara eraginkortasunez erabiltzeko eta hizkuntza normalizazioarekiko konpromiso aktiboa garatzeko.
4. Soziolinguistikako oinarritzko ezagutzak kontuan hartuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa balioetsiko da.
5. Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko;

horrela, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak saihestuko dira.

6. Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, erlazioan dauden hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.
7. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskola-jardueran hizkuntza mintzatua eta idatzia eraginkortasunez erabiltzeko.
8. Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta alorretan jasotako ezagutzak eta komunikazio estrategiak transferitzeko; horrela, ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko norberak duen ahalmenean gero eta konfiantza handiagoa sentituko dute.
9. Literatura-generoen oinarrizko araei eta horien bilakaera historikoaren oinarrizko etapei eta obrei buruzko ezagutza erabiltzea, literatura-testuen eta literatura asmoko testuen ulermena eta produkzioa bultzatzeko.
10. Literatura-ondarea balioestea, norbanakoak eta taldeak historiako eta kulturako hainbat testuingurutan izandako esperientzia sinbolizatzeko; horrela, euskal literaturako, inguruan dauden herrialdeen literaturetako eta literatura unibertsaleko ereduak obrak irakurri eta aztertuz, norberaren kultura identitatea eraiki ahal izango da.
11. Ereduak testuak eta norberak hautatutako testuak irakurri eta ikus-entzunezko beste eremu batzuk ere kontuan hartuta, literatura obrez gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza egoera ulertzeko eta sentiberatasun estetikoak garatzeko.



EDUKIAK

Euskara eta Literatura irakasgairako DBHko 3. eta 4. mailatarako zehaztutako eduki ia guztiekin dator bat gure ikasmateriala, eta bereziki segidan datozenekin:



EDUKI MULTZOAK

1. eduki multzoa: Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

Ahozko komunikazioa da gure arretagunea. Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak nahiko baztertuta egon dira eskola-sisteman. Eta beharrezkoa da sistema horrek duen garrantzia azpimarratzea, bai ikasleen komunikazio-gaitasuna oso-osorik gauzatzeko, bai ikasgelan harremanetan jarduteko eta esanahia negoziatzeko; horiek, hain zuzen, funtsezkoak dira eremu guztietan ezagutzaren eraikitze-prozesuan eragiten duten hizkuntza-trebetasun kognitiboak garatzeko. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa dela eta, eskolak euskararen ahozko komunikazioa indartu behar du, gizartean duen erabilera areagotzeko eta normalizazio-prozesua bultzatzeko.

- Landutako ahozko testuen genero-ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Gai ezagunei buruzko ahozko testuen –modu argian eta antolatuan aurkeztuak– esanahi orokorra eta espezifikoa nahiz informazio garrantzitsuena ulertzea. (3. mailan) Eskola-eremuko ahozko eta ikus-entzunezko testuetan (argibideak, ahaz emandako arauak, azalpen laburrak, elkarrizketak...) nahiz komunikabideetako testuetan (konbentzitzea, informatzea edo iritzia ematea helburu dutenak) aurkitu ditzakegun informazio eta datu garrantzitsuenak ulertzea.
- Ahozko testuak aztertzeko aurrez emandako argibideak jarraitzea.
- Ahozko testuak ulertzeko eta sortzeko estrategiak autonomiaz erabiltzea (eta 4. mailan, jakinaren gainean).
- Diskurtsoaren esanahi orokorra antzematea eta lortu nahi diren helburuetarako esanguratsua den eta ez den informazioa bereiztea. Eta ahazko mezuen komunikazio-egitura antzematea.
- Ahozko testuen esanahi osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Ahozko informazio-testu argien ideia garrantzitsuak laburtzea.

- Igorlearen asmoa zein den jakitea, ahozko testuetan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta implizituak) kontuan hartuta.
- Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak erabiltzea, ahozko testuen informazio espezifiko eskuratzeko.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak antzeman ondoren, ahozko diskurtsoen edukia gogoan hartzea eta, gero, aurreikusitako helburuak betetzeko erabiltzea.
- Ahozko testuen sorkuntza planifikatzeko, oharrak, eskemak eta gidoiak erabiltzea.
- Aurrez planifikatuta, hainbat eratako esperientziei, gertaerei eta eduki akademikoiei buruzko deskripzioak, narrazioak eta azalpenak ahoz sortzea; jarduera akademikoarekin edo gaurkotasunarekin lotuta dauden gaii buruzko ahozko aurkezpenak egitea; ikasleentzat interesgarriak diren gizarteko, politikako edo kulturako egungo gaii buruzko ahozko azalpen errazak ematea; norberaren esperientziei eta interesei buruzko ahozko deskribapenak eta narrazioak egitea.
- Informazio esanguratsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta IKT teknologiak erabiltzea, ahozko aurkezpeni laguntzeko.
- Hainbat komunikazio-helburu lortu nahian, eguneroko gaii eta interes pertsonala duten gaii buruzko elkarrizketetan eta itxura egiteetan aktiboki parte hartzea, eta era horretako komunikazioei dagozkien eta ohikoak zaizkien arauak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea.
- Ikasketa-eremuko ahozko elkarrizketetan eta komunikazio-egoeretan parte-hartze aktiboa eta kritikoa izatea.
- Argibideak jarraituz, gai akademikoiei edo eskola-gaii buruzko eztabaidetan eraginkortasunez parte hartzea.
- Norberaren ikuspuntua argumentuak emanez azaltzea. Halaber, besteen argumentuak gezurtatzea eta norberarenak berrikustea, zentzuzko ondorioak ateratzeko.
- (3) Konbentzitzea helburu duten mezuei dagokienez, jarrera kritikoa izatea; bereziki, gizarte-komunikabideetatik eratorritako mezuei dagokienez.
- Elkarrizketa, solasaldi edo eztabaida bateko argumentuak eta ondorioak laburtzea.
- Komunikazio-estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, harremanak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko. Mezuak berriro formulatzeko eta hartzaileen arabera egokitzeko komunikazio-estrategiak erabiltzea, eta, horrez gainera, (4. mailan) eragin-trukean sortzen diren arazoak konpontzea.
- Ahozko komunikazioaren oinarriko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Elkarrizketa gidatzen duten arauak ezagutzea; esaterako: hitz egiteko txandak, elkarrizketan izaten diren rola, ahots-tonua, jarrera eta keinu egokiak. Eta arau horiek aintzat hartzea eta errespetatzea.



- Komunikazio-harremanetan eta, bereziki, ikaskuntza-egoera partekatuetan aktiboki parte hartzea, eta errespetuz eta lankidetzan jardutea. Eta hainbat iritzi izan arren, lankidetzarako jarrera izatea eta besteekiko errespetuzko kritika egitea.
- Elkarrekintzetan, solaskideen hizkuntza-erabilerak errespetatzea.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabileretik jarrera kritikoak bultzatzea.
- Lankidetz-egoeretan, erantzukizunak bere gain hartzea eta prozesu nahiz ondorioak besteekin batera ebaluatzea.
- Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzea, ahozko erabilerak hobetzeko.
- Gizarte harremanak eraikitzea helburu duten ahozko eta ikus-entzunezko interakzioetan parte hartzea.
- Ahoskera eta intonazio egokia erabiliz, ahoz adierazteko interesa agertzea.
- (4) Jendaurrean hitz egiteko konfiantza eta inizatiba izatea.
- Ahozko hizkuntzan gertatzen diren lagunarteko erabileren eta erabilera formalen arteko desberdintasunei buruz hausnartzea, eta horiek zein komunikazio egoeratan erabili behar diren ezagutzea.
- Ahozko elkarrizketetan, euskararen erabilerarekiko jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- Eragin-trukea norberaren eta besteen sentimenduen kontzientzia hartzeko aintzat hartzea.
- Komunikazio-zailtasunak antzematea eta arazoak konpontzeko komunikazio-estrategiak erabiltzea; hau da, ahozko baliabideak nahiz ahozkoak ez diren baliabideak.
- Hizkuntzaren ahozko erabilera menderatzeak norbanakoan eta gizartean duen garrantzia balioestea.



2. eduki multzoa: Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

Ahokotasuna da gure ikasmaterialekin landuko duguna, baina, horretarako, idaztea eta irakurtzea ezinbestean egin beharreko lanak izango dira. Izan ere, ahozko testuak aurrez idatzitakoak izaten dira ia beti. Egitura eta ezaugarri jakinak izaten dituzte, eta aurrez prestatu behar dira. Gainera, edozein gairi buruz dokumentatzeko, beharrezkoa da irakurtzea eta hainbat iturritatik edatea, apunteak hartzea, eskemak egitea... Idatzizko testuak ondo ezagutzea komeni da, ahozkoak kontrolatzeko; elkarren osagarriak dira. Idatzizko komunikazioa zehar-lerroa da gure ikasmaterialean. Horrenbestez, Curriculumeko 2. eduki multzoko atal guztiak izango ditugu kontuan. Hori bai, idatzitakoa gero ahoz emateko garaiari berebiziko arreta jarrita.

3. eduki maltzoa: Literatura hezkuntza

Ahozko literatura lantzeko proposamenak egin ditugu gure ikasmaterialean, bertsolaritzarekin eta antzerkiarekin lotuta batik bat.

- Ahozko literatura balioestea belaunaldien arteko kultura transmititzeko eta norberaren identitate kulturala eraikitzeko bitarteko gisa.
- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera egokitutako literatura-testuak (moldatuak eta benetakoak) aktiboki entzutea eta ulertzea. Horiek espresioa landuz irakurtzea eta iruzkinak egitea.
- Literatura-testu errazak (esaterako, olerkiak eta antzerkiak) modu gidatuan birsortzea eta konposatzea, forma ezaugarriak ezagututa.
- Literatura-testuak dramatizatzea, birsortzea eta errezitatzea, antzezpen-estrategia errazak erabiliz.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea; horretarako, hausnartu eta ereduak aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiliko dira, bai eta irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza ere (mezu klasikoa gaur egunera egokitzea).
- Nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko, informazio-eta komunikazio-teknologiak gero eta gehiago erabiltzea.
- Literatura-sorkuntzei dagokienez, sentiberatasun estetikoa lortzea eta sorkuntza- eta estilo-elementuak aintzat hartzea.
- Literatura-testua plazera lortzeko, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntzaren eta norberaren aberastasuna lortzeko baliabidetzat balioestea, eta iritzi arrazoitua hitzez edo idatziz adieraztea.
- Norberak edo besteek egindako literaturako eta literatura-asmoko sorkuntzak balioestea, eta horiei buruzko iritzi arrazoitua ahoz eta idatziz adieraztea.
- Literatura-testuen balio esplizituei eta inplizituei dagokienez, jarrera kritikoa izatea.
- Ahozko euskal literaturan (tradiziozkoa eta tradiziozkoa ez dena) dauden generoen (lirikoa, narrazioa eta dramatikoa) oinarrizko ezaugarriak ezagutzea, bai eta horiek buruan gordetzea eta transmititzea errazten duten literatura-baliabideak ezagutzea ere.



4. eduki maltzoa: Hizkuntzari buruzko hausnarketa

Hizkuntzari buruz hausnartzea oso garrantzitsua da komunikazioaren ezaugarriez jabetzeko eta testuinguru bakoitzean ondo komunikatzen ikasteko.

- Hainbat komunikazio-egoerataro egokitutako eta ikasgelan landutako testuetan agertzen diren hizkuntza-formen erabilera eta esanahia aztertzea eta horri buruz hausnartzea.
- Hainbat komunikazio-egoerarekin lotutako funtzioei dagozkien egiturak, adierazpen arruntak eta esaerak erabiltzea eta finkatzea.
- Landutako testuetan, testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien eta horien bereizgarri diren oinarrizko hizkuntza-elementuak (erregistroa, hitz gabeko mintzaira, elementu prosodikoak, kortesia-arauak...) erabiltzea eta finkatzea.
- Landutako testuetan, hitzei eta esaldiei ahoskera, erritmo, intonazio eta azentuazio egokia emateko oinarrizko ereduak ezagutzea eta autonomiaz sortzea.
- Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta, horrez gainera, ondorioak ereduatan oinarrituz formulatzea.
- Oinarrizko hizkuntza-terminologia –hainbat hizkuntzatan baliagarria dena eta jardueretarako beharrezkoa dena– erabiltzea.
- Hizkuntzaren hainbat arlotan egindako oinarrizko akatsak antzematea eta zuzentzea, bai norberaren testuetan, bai besteen testuetan.
- Landutako testuetan, lexikoa antolatzeke, barneratzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko oinarrizko estrategiak aplikatzea; eta lexiko berriaren ezagutza eta erabilera hobetzea.
- Askotariko baliabideak autonomiaz erabiltzea egindako ikaskuntzak biltzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa izatea.
- Norberaren sorkuntzak hobetzeko eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia balioestea.
- Diskurtsoari bizitasuna ematen dioten zenbait testu mekanismo ezagutzea eta zuhurtziaz erabiltzea; arreta berezia jarri beharko da lexikoen, pronominalen eta adberbioen ordezkapenetan, bai eta zenbait lokailu erabilgarritan ere (antolatzeke, argibideak emateko, kausa eta ondorioa adierazteko edo aurkaritza erakusteko erabiltzen direnak).
- Hizkuntza bakoitzaren ezaugarri fonetikoak eta hitzen eta adierazpenen oinarrizko erritmo-, intonazio-eta azentu-ereduak ezagutzea eta geroz eta gehiago erabiltzea.
- Hizkuntzen artean egiten diren kalko eta transferentzia okerrak antzematea eta zuzentzea.
- (3. mailan). Euskararen hika formako hizkera ezagutzea eta, lagunarteko erregistroaren erabilera egokia den egoeretan, gero eta gehiago erabiltzea; bereziki, ahozko komunikazioan.
- (3. mailan). Igorlea testuan inplikutzen dela adierazten duten hizkuntza-formak ezagutzea eta erabiltzea: pertsona deixiak; ziurtasuna, aukera, obligazioa eta balorazioa (ikonoari eta lexikoari dagokiona) adierazteko hizkuntza-formak; perpaus motak; eta aditzak nahiz moduzko aditz-perifrasiak.

- (3. mailan). Gertakariak azaltzen dituzten diskurtsoen (ideien eta kontzeptuen esplikazioak), arrazoiketen (bereziki, kausak eta ondorioak) eta konbentzitzea helburu duten diskurtsoen (publizitatea) ezaugarriak ezagutzea.
- Ebaluazioan aktiboki parte hartzea eta ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea.

5. eduki multzoa: Hizkuntzaren dimentsio soziala



Hau da, 1. eduki multzoarekin batera, gehien landuko duguna. Hizkuntza bakoitzak mundu-ikuskerak bat dakar eta bere dimentsio soziala dauka. Hizkuntza guztien aberastasuna da aintzat hartzekoa eta hizkuntzen aldaerak ere bai, hizkuntzen bizitasunaren eta aldakortasunaren adierazle direlako. Euskararen dimentsio sozialaz jabetzeko hainbat proposamen egin ditugu guk. Euskararen aberastasunaz konturatzeko, batetik; horretarako euskalkien bizitasunari erreparatu diogu, eta baita gaur egun euskaraz sentitu eta bizitzeko dakartzan onurei ere. Bestetik, euskararen historia soziala aztertuko dugu, adinekoen testigantzen laguntzaz: euskarak izandako oztupoak eta aurrerapausoak, hezkuntzan ez ezik baita kulturaren ere (antzerkia, musika, bertsolaritza...).

- Solaskideen hizkuntza-erabilera errespetatzea.
- Edonolako bazterketa adierazten duten mezuekiko jarrera kritikoa izatea.
- (3. mailan) Hizkuntzak pertsonen arteko harremanak bideratzeko bitartekotzat eta komunitate baten identitate seinaleztat balioestea.
- (3. mailan) Bakoitzaren euskalkia aintzat hartzea eta erabiltzea, era askotako erregistroaren adibide gisa.
- (3. mailan) Gaztelaniaren eta euskararen arteko ukipena dela eta, hizkuntza erabiltzean sortzen diren zenbait kalko oker identifikatzea eta zuzentzea. horretarako, euskararen hitz eta adierazpen berezkoak ezagutu eta erabiliko dira.
- (3. mailan) Hizkuntza desberdinen aldeko jarrera positiboak garatzea, eta, bereziki, euskararen normalizazio-prozesurako norberak erantzukizunez jokatzeko. Horretarako, euskararen erabilerari lehentasuna emango zaio, bai pertsonen arteko harremanetan, bai ikaskuntza-egoeretan.
- (3. mailan) Ereduetan oinarrituz, azterketa bateratuak eginez eta testuak entzunez, euskararen historian izan duen bilakaera eta dituen barietateak (euskalkiak) ezagutzea; horrela, beste edozein kasutan bezala, bizirik dagoen eta etengabe aldatzen ari den hizkuntzat hartuko da. Horrez gainera, ikasleak ohartuko dira hizkuntzaren ikuspegitik aldagai guztiek balio bera dutela; hau da, ez dagoela besteak baino hobea den aldagairik.
- (3. mailan) Soziolinguistikako oinarritzko kontzeptuen esanahia interpretatzea, horiei buruzko erreferentzia egiten den testuen azterketa bateratuan oinarrituz.

- (3. mailan) Hizkuntzei eta horien hiztunei erreferentzia egiten dieten oinarriko kontzeptuak ezagutzea (eleanitza, elebakarra, elebiduna, erabilera-eremua, hizkuntza ofiziala, ama-hizkuntza...); horretarako, gai horiei buruzko ahozko eta idatzizko testuen ereduak aztertuko dira.
- (3. mailan) Barneratutako ezagutzak erabiliz, ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa behatzea eta aztertzea.
- (3. mailan) Hizkuntzak garatzeko, sustatzeko eta normalizatzeko erakundeak ezagutzea.
- (3. mailan) Ahozko eta idatzizko testuetan, euskalkiak nahiz horiek dituzten funtzioak ezagutzea.
- (3. mailan) Hizkuntza estandarrak (euskara batua) hizkuntza barietate desberdina duten hiztunen arteko komunikazio-tresnatzat duen funtzioa ezagutzea.
- (4. mailan) Europako egungo hizkuntza-errealitatea ezagutzea.
- (4. mailan) Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan dauden hizkuntza guztiak komunikazio- eta ikaskuntza-bitarteko gisa balioestea.
- (4. mailan) Beste kultura bat duten eta beste hizkuntzak hitz egiten dituzten pertsonekin harremanetan egoteak norberarengan sortzen duen aberastasuna balioestea.



Euskara eta Literatura ikasgaiarekin lotutako **12 fitxa pedagogiko** berri prestatu ditugu DBHko 3. eta 4. mailetarako, adinekoen zein gazteen testigantzak oinarri hartuta. **Proposamen horiek lau gai nagusitan banatuta daude, eta atal bakoitzak bere fitxa didaktikoak ditu.**

GAI NAĞUSIAK

A. AHOZKO TESTU GENEROAK

Ahozko komunikazioa lantzeko, ahozko testu-generoak ezagutu beharra dago. Ahozko ereduen beharra nabarmena da hezkuntzan, ikasmaterialak idatzizkoan oso oinarrituta daudelako, eta Ahotsak.eus proiektuan hainbat testu-generoren adibideak ditugu, jardun naturalaren emaitza direnak. Eredu batzuk aukeratu ditugu. Haien oinarri hartuta, ikasleak testu-generoen ezaugarriak zein testuinguruak aztertzeko eta identifikatzeko gai izatea nahiko genuke, eta euren testu-generoak sortzea hizkera estandar edo orokorrean, edozeinek ulertzeko moduan, baina hizkera formalegia erabili gabe. Hala, eguneroko bizitzarako baliagarria gertatuko zaie, eta erregistro kolokialean ere aplikatu ahal izango dute. Horretarako, bideoekin batera, proposamen pedagogikoak prestatu ditugu.

Gaiak:

- Errelatoa: autobiografia
- Ahozko baliabideak

B. AHOZKO LITERATURA

Ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi iritsi zaigun ondarea da atal honetan landuko duguna. Garai bateko kantak, kanta-jolasak eta bertsokera ezagutuko ditugu. Tradizioa ezagutzeaz gainera, tradizio hori biziberritzea ere bada asmoa, eta, ahozkotasunari lotuta, sormena bultzatzea.

Gaiak:

- Betiko kanta-jolasak
- Bertsolaritzaren garapena

C. EUSKARAREN ABERASTASUNA

Euskararen hainbat alor jorratuko ditugu atal honetan, euskalkiekin eta euskara batuarekin lotuta. Euskalkiek eta batuak elkarren osagarri izan behar dute, eta horretarako beharrezkoa da biak ezagutu eta balioestea, eta bien erabilera sustatzea. Herri hizkerek naturaltasuna eta adierazkortasuna ematen diote hizkuntzari. Euskalkiekin lotutako bi bideo prestatu ditugu: bata euskalkien erabilera formalari buruzkoa eta bestea euskalkiekin umorea egiteari buruzkoa. Izan ere, jolasaren eta imitazioaren bitartez errazagoa da ikasleak euskalkietara hurbiltzea. Euskara ikasteko prozesuari buruz ere beste bideo-proposamen bat egin dugu, euskaraz bizitzearen hautuarekin lotuta.



Gaiak:

- Euskara ikasteko prozesua
- Euskalkiak hezkuntzan eta komunikabideetan
- Euskalkiak eta umorea

D. EUSKARAREN HISTORIA

Euskarak hainbat gorabehera izan ditu azken hamarkadetan: oztupoak zein aurrerapausoak. Euskararen historian esanguratsuak izan diren hainbat gertaera ezagutu eta aztertzeko bidea emango digu atal honek, 1936ko gerrak baldintzatutakoak gehienak. Kultura-arloan zein hezkuntzan, euskararen kontrako jarrerak eta horrek eragindako transmisio etena, batetik, eta gerraostean euskara biziberritzeko ahaleginak eta horrekin lotutako lorpenak, bestetik. Isilpeko ikastolen historia eta 60-70. hamarkadetako bi kultura-mugimendu ezagutuko ditugu, musikagintzari eta antzerkigintzari dagozkionak. Gaur egungo egoerari buruz hausnartzeko balioko digute.

Gaiak:

- Euskararen kontrako neurriak
- Euskararen transmisioaren etena
- Gerraosteko ikastola klandestinoak
- Euskal musikagintza berria: Ez Dok Amairu
- Gerraosteko antzerkia: tradizioa vs modernotasuna

Ikus ditzagun fitxa didaktikoak banan-banan, bakoitzarekin zer landu daitekeen:

1. Autobiografia. (Ahozko testu-generoak)

Narrazio-testua da autobiografia. Narrazioak bi eratakoak izan daitezke: benetan gertatuak ala fikziozkoak. Autobiografia benetan gertatua izan ohi da. Ahotsak.eus proiektuan adinekoek asko darabilten testu-generoa dugu. Autobiografiaren hainbat adibiderek osatu dugu bideoa, eta ikasleak euren autobiografiak sortzera bultzatuko ditugu.



- Lantzen diren kontzeptuak: narrazioa, narratzailea, autobiografia, kontaketa, bitzta istorioak, testu-generoa, ahozkoatasuna
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Gure arbasoen bizimodua ezagutzeko interesa
 - Bizikidetzarako jarrera
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Beren bizipenak kontatzeko interesa
 - Ahozko jarduna ezagutu, erabili eta balioesteko gogo

2. Ahozko baliabideak: farolari eta gauzain. (Ahozko testu-generoak)



Ahozko baliabideak ondo erabiltzea ezinbestekoa da ahozko testu-genero guztietan. Gorputz-adierazpena da horietako bat: begirada, keinuak (aurpegikera, buruaren eta eskuen mugimendua), arnasa eta gorputz-jarrera. Ahotsa eta arnaskera ere garrantzitsuak dira: ebakera, isiluneak, abiadura eta erritmoa, bolumena, intentsitatea, tonua... Ahozko baliabide horien adibideak ikusiko ditugu. Horretarako, antzinako bi ogibideri buruzko Donostiako hainbat testigantza baliatu ditugu: farolariei eta gauzainei buruzko azalpenekin osatu dugu bideoa. Ikasleek ahozko baliabideak aztertzea eta erabiltzea izango da helburua.

- Lantzen diren kontzeptuak: gorputz-adierazpena, gorputz-jarrera, keinuak, arnaskera, ahozko baliabideak, testu-generoa, ahozkoatasuna
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Adinekoengandik ikasteko interesa
 - Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Harremanetarako eta besteekin komunikatzeko gogo
 - Beren bizipenak kontatzeko interesa
 - Ahozko jarduna ezagutu, erabili eta balioesteko griña

3. Betiko kanta-jolasen transmisioa. (Ahozko literatura)

Ahozko literaturan kantagintza eta jolasa eskutik helduta doaz maiz. Zazpi kanta-jolas esanguratsurekin osatu dugu bideoa. Adinekoen testigantzez gainera, umeen grabazioak ere erabili ditugu, kantuan eta jolasean. Ahozko ondarea ezagutzeko, biltzeko eta hura baliatuz kanta-jolasak sortzeko proposamenak egin ditugu, eta baita gaur egungo kanta-jolasak eta garai batekoak alderatzeko eta uztartzeko ere.



- Lantzen diren kontzeptuak: kantagintza, kanta-jolasak, ahazkotasuna, transmisioa, ahazko literatura
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Garai bateko bizimodua eta kultura ezagutzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Kantatzeko eta jolasteko irrika
 - Ahozko ondarea ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia

4. Bertsolaritzaren garapena. (Ahozko literatura)



Bertsolaritza fenomeno ezaguna eta baloratua da gaur egun. Baina garai batean ez zuen hain ospe ona. Nola bizi izan zuten bertsolaritza gure aurrekoek? XX. mendean bertsolaritzak izan duen bilakaera kontatzen da bideo honetan, hiru bertsolarik egindako ekarpenen berri emanez: 'Txirrita', 'Basarri' eta Xabier Amuriza. Bertsolaritzaren historia ezagutzeko balio du eta, aitzakia horrekin, ikasleak bertsotan jartzeko ere bai.

- Lantzen diren kontzeptuak: bertsolaritza, ahazkotasuna, transmisioa, ahazko literatura
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Garai bateko bizimodua eta kultura ezagutzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Bertsoak kantatzeko eta sortzeko irrika
 - Ahozko ondarea ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia

5. Euskara ikasteko prozesua. (Euskararen aberastasuna)

Euskara hizkuntza zaila dela dio aspaldiko mito batek, munduko zailenetako bat dela. Euskara ez ikasteko aitzakia moduan erabiltzen dute hori batzuek, oraindik ere. Euskara ikasteko prozesua nolakoa izan den kontatzen digute bideo honetan hainbat lagunek, bertako bihurtu diren atzerritarrek, modu positiboan. Hizkuntzak ikasteari buruzko hausnarketa eragiteko, euskara integrazio-hizkuntza modura ikusarazteko eta hizkuntza-aniztasuna ezagutarazteko proposamenak prestatu ditugu.



- Lantzen diren kontzeptuak: integrazioa, hizkuntza-ikasketa, hizkuntza-aniztasuna, eleaniztasuna, bizikidetzaz
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Euskarari buruz hausnartzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Bizikidetzarako jarrera erakustea
 - Etorkinen integrazioa sustatzeko griña
 - Hizkuntza-aniztasuna ezagutu, errespetatu eta balioesteko gogoia

6. Euskalkiak hezkuntzan eta komunikabideetan. (Euskararen aberastasuna)



Zer leku dute euskalkiek ikastetxeetan? Eta komunikabideetan? Eta zer leku izan beharko lukete? Iparraldeko zein Hegoaldeko hainbat gazteren iritziekin osatu dugu bideoa. Euskarak zein euskalkiek hezkuntzan eta hedabideetan duten presentziari buruz hausnartzeko, iritzi propioak eratzeko eta argudiatzeko proposamenak egin ditugu, DBHko 3. mailan lantzeko.

- Lantzen diren kontzeptuak: euskalkiak, herri-hizkera, hizkera formala, komunikabideak, hezkuntza, ahozkotatasuna
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Euskarari buruz hausnartzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Herri-hizkerak ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
 - Euskalkien aberastasunaz jabetu eta haien erabilera sustatzeko nahia

7. Euskalkiak eta umorea. (Euskararen aberastasuna)



Herri hizkeretan hitz eta esamolde adierazkor asko erabiltzen dira, tokian tokiko euskarari naturaltasuna, informaltasuna eta grazia berezia ematen diotenak. Euskalkiek imitazioak egiteko ere joku handia ematen dute. Berezi gazteen iritziekin osatutako bideo bat prestatu dugu herri hizkeren bueltan jarduteko akuilu gisa; hainbat proposamen egiteko, umorea lantzeko eta jolasteko balioko du. DBHko 3. mailan lantzeko proposa.

- Lantzen diren kontzeptuak: euskalkiak, herri-hizkera, gazte-hizkera, hizkera informala, ahozkotasuna
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Euskarari buruz hausnartzeko interesa
 - Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Herri-hizkerak ezagutu, erabili eta balioesteko gogo
 - Euskalkien aberastasunaz jabetu eta haien erabilera sustatzeko nahia

8. Euskararen kontrako neurriak. (Euskararen historia)

Euskararen historiako garai ilunak ekarriko ditugu gogora, euskararen zapalkuntzarekin lotutakoak, hain zuzen ere. Eskolan dena erdaraz zen garai batean, eta euskaraz egiten zuena zigortu egiten zuten ikastetxe batzuetan. Kanean euskaraz hitz egitea ere gaizki ikusita zegoen, eta isunak ere jartzen zituzten. Hainbat lekukoren esperientziak batu ditugu bideo honetan. Lehenaldia ezagutzeko, enpatia garatzeko eta hura orainaldiarekin alderatzeko proposamenak egin ditugu, ikasleek gaur egun euskaraz bizitzeko duten aukera balora dezaten.



- Lantzen diren kontzeptuak: zapalkuntza, galarazi, debekatu, frankismoa, gerraostea, gerra
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Garai bateko bizimodua eta kultura ezagutzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Bizikidetzarako eta elkarlanerako asmoa
 - Ahozko ondarea ezagutu eta balioesteko gogo
 - Euskara zaindu eta sustatzeko griña

9. Euskararen transmisioaren etena. (Euskararen historia)



Etxe eta familia askotan etena gertatu zen euskararen transmisioan. Iparraldean zein Hegoaldean. Eten horren arrazoiei buruzkoa da prestatu dugun bideoa. Euskal Herri osoko hainbat pertsonaren bizipenak eta iritziak (gehienbat adinekoenak) batu ditugu bideo honetan. Lehenaldia ezagutzeko proposamenak egin ditugu, eta baita gaur egungo egoerari buruz hausnartzeko zein euskara sustatzeko giltza batzuk eman ere.



- Lantzen kontzeptuak: transmisioa, konplexuak, zapalkuntza, hizkuntza-jarrerak, franquismoa, gerraostea
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Garai bateko bizimodua eta kultura ezagutzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Ahozko ondarea ezagutu eta balioesteko gogoia
 - Bizikidetzarako eta elkarlanerako asmoa
 - Euskara zaindu eta sustatzeko griña

10. Gerraosteko ikastola klandestinoak. (Euskararen historia)

Euskara eta hezkuntza dira bideo-proposamen honen oinarriak: gerraosteko ezkutuko ikastolak, alegia. Gerra aurrean sortu ziren euskarazko lehen eskolak, baina 1936ko gerrarekin bertan behera geratu ziren. Ikastola klandestinoak nola sortu ziren, zer baldintzatan eta nola joan ziren hedatzen, horixe da lekukoek bideoan kontatzen dutena. Proposamenak ere bide beretik doaz: historian sakontzea da helburua, betiere gaur egungo egoera eta aldarrikapenak hobeto ulertzeko: eskola publikoaren bilakaera txalogarria eta euskararen aldeko festen zentzua (Kilometroak, Herri Urrats, Araba Euskaraz...), esaterako. DBHko 3. mailan lantzeko aproposa.



- Lantzen diren kontzeptuak: herrigintza, klandestinoak, legez kanpokoak, zapalkuntza, elkarlana, bizikidetzak
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Garai bateko bizimodua eta kultura ezagutzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Ahozko ondarea ezagutu eta balioesteko gogoia

- Bizikidetzarako eta elkarlanerako asmoa
- Euskara zaindu eta sustatzeko griña

11. Euskal kantagintza berria. (Euskararen historia)



Euskal kantagintza berria

“Euskal kantagintza berria” bezala ezagutzen da 60ko hamarkadan musikagintzan gertatu zen fenomeno. Eta Ez dok Amairu kultura-mugimendua izan zen emaitza nagusia. Garai hura bizi izan zuten hainbat lagunek gertatu zenaren berri ematen dute bideo honetan. Orduan sortutako giroa, testuinguru historikoa eta abestiak ezagutzeko aukera izango dute ikasleek, eta gure proposamenen bitartez orduko filosofia birsortzen ere saiatuko gara; besteak beste, euren kanta sortzera bultzatuko ditugu.



- Lantzen diren kontzeptuak: kantagintza berria, ahozkoasuna, modernotasuna, kultura-mugimendua
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Garai bateko bizimodua eta kultura ezagutzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Kantatzeko eta kanta sortzeko irrika
 - Ahozko ondarea ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia

12. Antzerkia: tradizioa vs modernotasuna. (Euskararen historia)

Gerra aurreko eta batez ere osteko antzerkigintza da hizpidea bideo honetan, eta garai hura ezagutzeko bidea ematen du. Kantagintzan bezalaxe, antzerkigintzan ere urte oparoak izan ziren gerraostekoak; hori bai, hazia aurretik zegoen ereinda. Orduko giroa eta jarduna ezagutarazteaz gainera, antzerki amateurrari buruz hausnartzeko, antzerkiarekin zaletzeko eta ikasleak gidoilari zein antzezle bihurtzeko proposamenak egin ditugu.



Antzerkia: tradizioa vs modernotasuna

- Lantzen diren kontzeptuak: antzerkigintza, antzezle, amateurrari, antzerkizaletasuna, ahozkoasuna
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
 - Garai bateko bizimodua eta kultura ezagutzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Antzezlanak ikusteko eta sortzeko irrika
 - Ahozko ondarea ezagutu eta balioesteko gogoia

NOIZ ETA NOLA ERABILI

- *NOIZ erabili:*

Euskara eta Literatura irakasgaia ematean erabiliko da ikasmaterial hau, DBHko 3. eta 4. mailatan. Fitxa batzuetan bai, baina gehienetan ez dugu zehaztuko bideo bakoitza DBHko zein mailatan erabili, kasuan kasu eta ikastetxez ikastetxe aldatu egingo baita hori. Irakasleak erabakiko du.

Adibiderako: euskararen historiako garai ilunei buruzko bideoak DBHko 3. mailarako aproposak izan daitezke, euskararen historia soziala ezagutzea maila horretako edukiekin bat datorrelako. 4. mailako edukietan, berriz, dimentsio sozialean ez dator halakorik; bai, ordea, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiko DBHko 4. mailako edukietan (1936ko gerra eta gerraostea). Beraz, irakasleak bi irakasgaiak elkarren osagarri izatea erabaki dezake.

- *NOLA erabili:*

Irakasleak Interneten dauka ikasmateriala, lizentzia librearekin erabilgarri. <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> atarian aurkituko du, **Gaiak** atalean, hain zuzen. Euskal Herriko ikastetxe orok du erabiltzeko aukera.

Bilaketak egiteko **hiru modu** nagusi daude:

-Irakasgaiak. Hor klik eginda, irakasgaien zerrenda agertuko da, eta bat aukeratuko du irakasleak. Adibidez, “Herritartasunerako Hezkuntza” aukeratuz gero, irakasgai horrekin lotutako fitxa guztiak agertuko zaizkio: hamabi fitxa.

-Gaiak. Atal horretan klik eginda, gaien zerrenda agertuko da, eta bat aukeratuko du irakasleak. “Genero-berdintasuna” aukeratuz gero, adibidez, gai horrekin lotutako fitxak agertuko zaizkio: hamabost fitxa.

-Mailak. Etapa bakoitzean zer fitxa dauden ikusteko aukera ere izango du irakasleak. Adibidez, DBHrako zer fitxa didaktiko dauden.

Webgunean eginiko bilaketa ororen emaitza ikus-entzunezko bat izango da beti. Eta hantxe izango du irakasleak beharrezko informazio guztia: bideoa, laburpena, proposamen pedagogikoa, testuingurua (informazio osagarria)... Adibiderako, ikus fitxa hau: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskararen-transmisioaren-etena>

Bideoa eta proposamenak ikusita, irakasleak erabakiko du nola erabili: proposatzen diren jarduerak bere egin, beste batzuk prestatu edo zer lanketa egin nahi duen eta zenbat denbora eskaini gai horri. Unean uneko egoerari, mailari eta ikasle-taldeari egokituta hartuko ditu erabakiak, ikasleekin adostasunak bilatuta.

Nahi izanez gero, irakasleek zein ikasleek ikus-entzunezkoak ordenagailuetara jaisteko aukera dute. Gainera, ikus-entzunezkoek transkripzioa daukatenez, testua modu errazean lortzeko aukera dago, inprimatu eta ikasleei emateko moduan.

Irakasleek eta ikasleek materialari buruzko iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera dute webgunean bertan uneoro. Ikasmateriala erabilia sortutako ekoizpenak partekatzeko aukera ere bai. Hala, aldaketak egiten eta materiala hobetzen joango gara etengabe. Interaktiboa izango da.

PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK: planteamendu didaktikoa

Gure fitxa didaktikoak ez dira Sekuentzia Didaktikoak, baina Sekuentzia Didaktikoen izaera eta metodologia kontuan hartuta prestatu ditugu (Dolz & Schneuwly 1997); horrenbestez, SDak sortzeko bidea ematen dute. Sekuentzia Didaktikoak helburu jakin eta erreal bati erantzuteko jarduera multzoak dira. Guk bideoekin lotutako jarduerak proposatzen ditugu eta baita helburu jakinak ere (ahozko ekoizpenak batik bat, askotariko bitartekoak erabiliz eta azken helburuetarako hainbat euskarri erabiliz); eta ebaluazio-irizpideak ere bai. Bidenabar, materiala eta ikaste-prozesua esanguratsuak izatea bermatzen dugu. Irakaslearen esku dago jarduera horiek harikaldtu, gaian sakondu eta egokia iruditzen zaion ekoizpen erreal batekin amaitzea. Gure proposamen didaktikoak irekiak dira, eta irakasleak nahi bezala molda ditzake.

Landuko diren jarduerak egitura kooperatiboak erabiliz gauzatzea proposatzen dugu (Kagan 1999). Ikasten ari diren berdinen arteko interakzioa sustatzen da, benetako ideien elkartrukea eta eztabaida. Adimen kritikoa, objektibotasuna eta hausnarketa diskurtsiboa garatzen dira taldelanean. Ikasketa kooperatiboaren printzipioak:

- Elkardependentzia positiboa.
- Aurrez aurreko interakzioa.
- Taldearen egitura/antolaketa kooperatiboa.
- Bakoitzaren, taldearen eta prozesuaren ebaluazioa.

Fitxa pedagogikoen oinarria testigantzez osatutako hamabi bideo dira. DBHko 3. eta 4. mailetan Euskara eta Literatura irakasgaietan lantzen diren edukiei erreparatuta osatutako ikus-entzunezko multzoa. Bideo horiek bereziki **Ahotsak.eus** eta adinekoen grabazioak dituzte oinarrian; hori bai, "Euskararen aberastasuna" ataleko bideoetan, esaterako, gazteak eta euskara ikasi duten adin askotako atzerritarrak ere agertzen dira.

Bideoak "**Proposamen pedagogikoa**" izeneko atala du beti. Horixe da atal nagusia, eta bertan bideoarekin lotutako jarduera ereduak proposatzen dira. Bestalde, fitxa pedagogikoan informazio gehiago ere izan daiteke (irakasleentzat egokia eta baliagarria izango dela ikusiz gero jartzen duguna): testua, testuingurua (informazio osagarria, lotura interesgarriak), argazkiak...

Ikus ditzagun zehaztasun handiagoz fitxako atalak:

A "Proposamen pedagogikoa" atala:

Ikasleek garatu beharreko oinarrizko gaitasunekin lotuta daude proposamen pedagogikoak. Ikasleen autonomia, sormena, ikerketa, lan kooperatiboa eta ikasten ikasteko estrategiak bultzatzen dituzte. Proposamen pedagogiko guztietan, lehenengo eta behin hauxe jartzen dugu: proposamen horrekin ikasleengan zer jarrera sustatzea dugun helburu. Adibidez, Euskararen transmisioaren etena fitxan hauek datoz:

- *Garai bateko bizimodua eta kultura ezagutzeko interesa*
- *Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea*
- *Ahozko ondarea ezagutu eta balioesteko gogoia*
- *Bizikidetzarako eta elkarlanerako asmoa*
- *Euskara zaindu eta sustatzeko griña*



Jarduera proposamenak bideoarekin lotuta daude, eta **hiru alditan** banatzen dira. Aldi bakoitzerako jarduera batzuk proposatzen ditugu:

1. Bideoa ikusi aurretik egitekoak:

- Aurre-ezagutzak aktibatatu
- Erreferentziak eman
- Iritziak jaso (galderak, jolasak, dinamikak)
- Hipotesiak egin

2. Bideoa ikusi bitartean egitekoak:

- Aurre-ezagutzak konparatu
- Ulermenarekin lotutako zalantzak argitu eta hiztegia landu

3. Bideoa ikusi ondoren egitekoak:

- Ulermena ziurtatu
- Hausnarketa eragin (galderak, jolasak, dinamikak)
- **Azken ekoizpena:** hainbat ekoizpen proposatzen ditugu aukeran. Hamaika azpi-ataletan sailkatu ditugu ekoizpen proposamenak:

“Testigantza bila”. Ahotsak.eus webgunean testigantza gehiago bilatzea, adibidez herrikoak, gai horri buruz gehiago jakiteko eta gertuago sentitzeko.

“Zu zeu elkarrizketatzailer”. Ikasleek elkarrizketak egitea, etxeko eta gertuko egoera ezagutzeko. Bideoz grabatu, eta ondoren hainbat modutara aurkez daiteke, ikastetxean zein herrian zabaltzeko.

"Hitzen arrastoa". Testigantzen barrunbeak aztertzea, alderdi linguistikoa bereziki, eta, hitz aproposak aukeratuz, nahi duguna deskribatzea, azaltzea...

"Historia egiten". Ikerketa eginez, historiara begiratzea, gai horrek izan duen garapena ezagutzeko aukera izateko.

"Gaur egunera begira". Gaur egungo egoerari begiratzea, atzokoa eta gaurkoa alderatu ahal izateko.

"Mundu zabalean". Mundura begira jartzea, beste toki batzuetan zer gertatzen den jakiteko eta gaia bere osotasunean ulertzeko.

"Eman iritzia". Gai horri buruz hausnartzea, nor bere iritzia eraikitzeko.

"Ika-mika". Norberak bere iritzia defendatzeko argudioak garatzea, eta gainerakoen iritzia ulertu eta errespetatzea, eztabaida formalen bidez batez ere.

"Sormena lagun". Irudimena lantzeko ariketak, sormena bultzatzen dutenak, artearen bidetik (ilustrazioa, komikia...) eta *brainstorming* edo ideia-ekaitzak eta lehiaketak sustatuz.

"Bestearen azalean". Besteen azalean jartzea, rol-jokoen bidez, azalpenak emanez edo antzerkia eginez, enpatia lantzeko.

"Jolasten". Jolasa erabiliko da, eskulanak eta beste, jolastuz ikasteko.

- **Ekoizpena burutu eta partekatu.** Azken ekoizpenean ahozkoasuna lantzea da gure erronka, ahozkoari ematea garrantzia. Horrenbestez, ahozko jardueraren bat egingo dute ikasleek, gelakideei beren lanaren emaitza ezagutarazteko (narrazioa, azalpena, antzezlanak, eztabaida, iritzia ematea...). Jarduerak laburrak izaten dira eta kasu batzuetan bidez grabatzea proposatzen dugu (ondo egindakoez eta hobetu beharrekoez jabetzeko, eta etorkizuneko beste ekoizpen batzuekin alderatzeko). Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea.
- **Grabazioak ikusi eta ebaluatu.**

Ebaluazio-irizpideak. Fitxa guztietan jartzen ditugu ikasleak ebaluatzeko eta ikasleen autoebaluaziorako irizpideak.

B- Gainerako atalak:

Atal hauek ere badituzte fitxek:


- **Testua.** Grabazioaren edukia, idatziz, ulermena errazteko. Irakasleak testua inprima dezake, eta ikasleei banatu, bideoa hobeto ulertzeko lagungarria gertatuko zaiela iruditzen bazaio.
- **Testuingurua.** Gaiari kokatzeko balio duen informazioa, jakingarriak: testuingurua, historia, azalpenak... Eta gaiarekin lotutako beste bideo batzuen loturak: *Ahotsak.eus* webgunekoak, *Ikasgelan* webgunekoak zein Interneteko bestelako material interesgarriari buruzko erreferentziak.
- **Argazkiak.** Ikasmaterialeko proposamenek hala eskatzen dutenean, argazkiak ere jartzen ditugu fitxetan.



PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK

1. *Gaia*: **Autobiografia**. Ahozko testu-generoak.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/autobiografia>



30

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.
2. Autobiografiari buruz hitz egingo dugu:

- *Zer da autobiografia? Norberari gertatutako edozer? Gure oroitzapenak? Besteen kontuak (guraso, senide, lagun...) tartekatzen baditugu ere bai, gure ikuspegia ematen dugun heinean?*
- *Zéin dira autobiografiaren ezaugarriak? Zer aditz mota erabiltzen da (1.pertsona)? Kronologikoa izan ohi da?*
- *Eta zer da biografia? Zertan desberdintzen da autobiografiatik?*

Autobiografiaren definizio posible bat: norberak bere bizitza edo bizitzaren zati bat kontatzea da autobiografia: jaiotza, ibilbidea, lorpenak, zaletasunak eta pertsona horrentzat garrantzitsuak izan diren bestelako kontuak.

Biografiaren definizio posible bat: pertsona batek beste norbaiten bizitza kontatzen duenean, jaiotzatik hasita; bere ibilbideko gertaera nagusiak (lorpenak zein porrotak).

Autobiografia eta biografia narrazio-testuak dira. Narrazioak bi eratakoak izan daitezke: benetan gertatuak ala fikziozkoak. Autobiografia eta biografia benetan gertatuak izan ohi dira.



3. Ikasle bakoitzak bere autobiografia laburra idatziko du (parrafo bat edo bi), guztion artean erabakitako gertaera eta ekintzekin. Aurkezpen pertsonal gisakoa izango da.

Adibidez: izena, noiz eta non jaio diren, non bizi izan diren, non eta zer ikasi duten, zer zaletasun dituzten...

Prestatu dutena ikaskideekin partekatuko dute; ahoz azalduko dute (idatzitakoari begiratu gabe, ahal dela). Normalean idatziz jasotakoari deitzen zaio autobiografia, baina ahoz ere kontatu daiteke eta guri ahozkotasuna lantzea komeni zaigu.

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu, gero azalpenak emateko. Adibidez, gerrako kontuak. Karlistek altxamendu militarrekin bat egin zuten, nahiz eta euskaldunak izan, baina abertzaleek, ordea, ez; horregatik, altxatuek gerra irabazi zutenean, abertzaleen eta euskararen kontrako neurriak hartu zituzten. Ikurrina debekatuta egon zen 1977. urtera arte. Legez debekatuta zegoen 14 urte bete aurretik lanean hastea, baina ohikoa zen lehenago ere lan egitea (trikimailuak erabiltzen zituzten horretarako).
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.

2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zuen ustez, bideoko denak dira autobiografiak? Lehenengoa eta bosgarrena ere bai? Eztabaïdatu.
- Zeïn da zuek egindako autobiografiara gehien gerturatzten dena?
- Autobiografia oharkabean, konturatu gabe, ere egin daiteke?
- "Etxean jarritako marka" aipatzen du urretabizkaïak. Zuek badaukazue rolik familian (arduratsua, bihurria, isila...)?

Kontuan izan behar da ahozko jarduna genero-nahasketa dela. Azalpenak, deskribapenak, elkarrizketak... tartekatzen ditugu, baita autobiografietan ere.

3. Taldeka jarrita, bideoko autobiografiak aztertuko ditugu. Talde bakoitzak bana aztertuko du:

1. ***Belaunaldi baten erretratua.*** Jokin Muxika
2. ***Lehenengo lana.*** Maritxu Olabiaga
3. ***Autobiografia psikologikoa?*** Arantxa Urretabizkaia
4. ***Aurkezpen pertsonala.*** Onintza Enbeita
5. ***Autobiografia ala biografia partekatua?*** Elizagoien ahizpak

Irizpide hauek izan ditzakete kontuan:


<p><i>Norberari buruz hitz egiten du. Noiz? Zer aditz-forma darabil (1. pertsona sing., 1. pl.)?</i></p>	
<p><i>Beste batzuei buruz hitz egiten duenean, zer aditz-forma darabil (3. pertsona)?</i></p>	
<p><i>Kontatzen dituen gertaerak edo ekintzak</i></p>	<p>- - - -</p>
<p><i>Kontatzen duena kronologikoa da? (Zein dira horretaz ohartarazten gaituzten hitzak, lokailuak eta formulak?)</i></p>	
<p><i>Agertzen diren sentipenak eta iritziak</i></p>	



4. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen gara daitezke. Bost adibide (ikasleek aukera dezakete, eta baita ordeko beste ekoizpenen bat proposatu ere, edo proposamen bat baino gehiago egin):


- *"Testigantza bila".* Ahotsak.eus webgunean testigantza gehiago bilatuko dituzte ikasleek, adibidez herrikoak. Autobiografiaren ezaugarriak dituzten testigantza onak bilatzea izango da erronka. Binaka/hirunaka jarri, eta talde bakoitzak testigantza bana aukeratuko du.

Lanketa txiki bat egingo dute bideoa oinarri hartuta, eta ondoren gelakideekin partekatu, aurkezpen txiki bat eginez:

- 
- Hitzunaren datu batzuk azaldu (biografia laburra)
 - Bideo pasarteak erakutsi
 - Azalpenak: zergatik aukeratu duzu? Bideoan autobiografiaren zer ezaugarri agertzen da?

- *"Za zea elkarrizketatzaile"*. Ikasleek elkarrizketak egingo dituzte. Herriko pertsona ezagunak elkarrizketatuko dituzte (idazleak, kirolariak, kultura-arloko pertsona ezagunak...). Guztion artean zerrenda bat egin dezakegu, eta galdera posible batzuk ere denon artean pentsatu. Taldeka egin daiteke, 2-3 laguneko taldeetan. Behin baiezkoa lotuta, galdetgia zehaztu eta haien bizitzari eta ibilbideari buruzko galderak zehatzago prestatuko dituzte.

Elkarrizketak bideoz grabatuko dira (ikus grabazioak egiteko [jarraibideak](#); ondo legoke bideoak [Ahotsak.eus](#) proiektura bideratzea; (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko ikasleen proiektua](#)). Ondoren, bideo muntaia egingo dute, argazkiak (elkarrizketatuei eskatu eta Interneten ere bilatu) eta musika ere sartuta (bideoak editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsiko zaie). Eraitza gelan aurkeztuko dute, ahozko aurkezpen txiki bat eginez:


- 
- Azalpena: prozesuaren nondik norakoak (nor elkarrizketatu duten, zergatik, non, esperientzia nolako izan den, zer izan den zailena, zer politena...)
 - Bideoa erakutsi

Bideoak sare sozialetan zabal daitezke, egindako lanak ikastetxean eta herrian ezagutzera emateko. Eta idatziz ere ipini daitezke, argitaratzeko moduan. Adibiderako, ikus Jakintza ikastetxeko ikasleek egiten dituzten elkarrizketak: [Kirmen Uribe idazleari egindako elkarrizketa](#).

- ***"Bestearen azalean"***. Umetako anekdotak kontatzeko garaia da! Taldeka jarri (4-5 lagun) eta taldekideei umetan gertatutako zerbait kontatzea da asmoa. Txandaka hitz egingo dute ikasleek. Bakoitzak anekdota bat baino gehiago kontatu dezake. Ondoren, anekdota politenak aukeratzeko dituzte, eta ikasgelan kontatu. Baina adi! Ikasle bakoitzak taldekide bati gertatutakoa kontatuko du, ez berea! Bestearen azalean jarriko dira, eta lehenengo pertsona hitz egingo dute, eta kontakizunak sinesgarria izan beharko du. Gainerako taldeetakoek anekdota hori zeini gertatu zaion asmatu beharko dute.

Aurkezpenak grabatzea ondo legoke, gero aztertu ahal izateko. Bozketa ere egin daiteke, ondoen kontatutako anekdotak aukeratzeko, eta horiek ikusi eta guztion artean alde onak zerrendatu (erabili dituen ahozko baliabideak, komunikazio estrategiak...).

- ***"Jolastex"***. Irudimena lantzeko jolas bat egingo dugu. Hasteko, ikasleak 5 laguneko taldeetan banatuko dira. Talde bakoitzak folio zuri bat izango du, eta folio bakoitza 20 karratutxotan zatituko du. Karratutxo bakoitzean marrazki txiki bat egingo dute, hogeit hamar marrazkitxo guztira. Nolakoak? Animalia, objektua, pertsona, lekua edo emotikonoa izan daitezke. Ikasle bakoitzak lau marrazki desberdin egin ditzake. Ez oso konplikatua, sinpleak. Adibiderako ikus [Ahoz Aho](#) blogeko [txarteltxo hauek](#). Marrazkiak egindakoa, txarteltxoak ondoko taldekideei emango dizkiete. Jolasa prest daukagu!



- **HELBURUA:** autobiografia bat asmatzea
- **NOLA?** Taldekide bakoitzak txarteltxo bat hartuko du, eta egokitu zaion marrazkiarekin lotutako zerbait asmatuko du. Adib. Zuhaitz bat agertzen bada: *"Zuhaitz baten azpian jaiotzen nintzen"*.
- Guztion artean biografia bat osatuko dugu!

Kontuan izan: bizitzako etapen kronologia errespetatzea komenigarria da.

- **"Historia egiten".** Euskal Herriko pertsonaia ezagunak ikertuko ditugu, historiako alorren batean gailendu direnak (zientzia, musika, kirola, literatura, zinema...), eta haien biografiak prestatuko ditugu. Bizirik egon daitezke edo jada hilda. Gustuko pertsonaia ezagun bat aukeratuko du ikasle bakoitzak, hari buruzko informazioa eta argazkiak bilatu eta biografia prestatu ([Prezi](#) programa erabil dezakete). Banaka edo talde txikietan egin daiteke. Gelan egingo dute aurkezpena, ikaskideen aurrean.
- **5. Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: azalpena, aurkezpena, bideoz jasotako adierazpena..., eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea (ahozko jardunen bilakaera ikusteko). Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#)).

2. Gaiá: Ahozko baliabideak: farolari eta gauzain. Ahozko testu-generoak.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/ahozko-baliabideak-farolariak-eta-gauzainak>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a navigation menu (Sarrera, Honi buruz, Materiala, Euskalkitegia). The main content area features a video player titled 'Ahozko baliabideak: farolari eta gauzain' with a play button. Below the video is a table with the following information:

Maiak:	DBH
Proiektuak:	EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Lanbideak, Testu-generoak
5 puntu 5 izarreko maximotoi	
Irizki 1 guztira	

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.
2. Ahozko baliabideei buruz hitz egingo dugu:

- *Ahozko baliabideak ondo erabiltzea ezinbestekoa da ondo komunikatzeko. Ahozko testu-genero guztietan. Zein dira hitz egitean darabiltzagun baliabideak?*
- *Gorputz-adierazpena diogunean, zertaz ari gara?*

Gorputz-adierazpena: begirada, keinuak (aurpegikera, buruaren eta eskuen mugimendua), arnasa eta gorputz-jarrera. Ahoskera ere garrantzitsua da: ebakera, isiluneak, abiadura eta erritmoa, bolumena, intentsitatea, tonua...

Ikusiko dugun bideoan farolariei eta gauzainei buruz hitz egiten dute. Jada desagertuta dauden ogibideak biak ala biak:

- *Zer dakizue lanbide horiei buruz? Zer da farolaria? Eta serenoa edo gauzaina? Zer egiten zuten?*
- *Ez badakizue, irudimena erabili eta asmatu!*

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu, gero azalpenak emateko. Adibidez, *illunarian* (ilunabarrean, iluntzean), *patu* (pagatu, ordaindu), *lapurrrayeik* (lapurreriarik, lapurretarik)...
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- *Ogibide interesgarriak al dira? Zergatik?*
- *Lekuko azalpenak aurrez prestatutakoak al dira ala bat-batekoak?*
- *Ondo kontatuta al daude?*
- *Zein dira hizlari onenak, ondoen komunikatzen dutenak? Gogoan al duzue baten bat?*

3. Kontaketak sakonago aztertuko ditugu. Ikasleak binaka jarriko dira, eta bikote bakoitzari zenbaki bat egokituko zaio, 1 ala 2 (eserita dauden hurrenkeran egin daiteke). Hala, bikote bakoitzak egokitutako kontaketa aztertuko du.

1. Donostiako farolariak
2. Gauzainak edo serenoak



Pasadizoak idatzita eman (Ikus 'Testua' atala). Aztertzeko garaian, honako hauek izan ditzakegu kontuan:

A. Edukia:

- → Zein hiztunek ematen dituzte azalpen onenak? Zergatik (zehaztasuna, argitasuna...)?
- → Ba al dago hitz gutxi edo zehaztasun gutxikoak erabilia ondo komunikatzea lortzen duenik (gorputz-adierazpenaren bidez, adibidez)?

B. Ahozko baliabideak:

<p>Kokapena eta itxura: Grabazio tokia, argitasuna, akustika, janzkera... (arreta desbideratzen duen elementurik?)</p>	
<p>Aurpegia: Begirada (nora eta nola begira?) eta aurpegikera (irribarretsu ala serio?)</p>	
<p>Gorputzaren mugimendua: Keinuak eta eskuen mugimenduak (egiten dituzten mugimenduak apuntatu. Laguntzen al diote diskurtsoari?)</p>	
<p>Ahotsa: Ahoskera (garbia, itxia), tonua (baxua, altua), abiadura (azkar, poliki) eta erritmoa (aldaketak, erregularra)</p>	

<p>Ahozkoaren ezaugarriak: Errepikapenak, esaldi amaitu gabeak, onomatopeiak eta hitz-makuluak (esto, pues, ba, e...) (apuntatu erabiltzen dituztenak)</p>	
---	--

Bikoteka egindako lana ikasgelan partekatuko dugu. Aukera bat: ezaugarriak arbelean idaztea.



4. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide (ikasleek aukera dezakete, eta baita ordeko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- ***"Jolastex"***. 4-5 laguneko taldeetan banatuta egingo dugu jolasa. Hitzen orde, *bala-bala hizkuntza* erabiliko dugu (hitzen orde *bala-bala* esatean datza).

Zakutxo edo poltsa batean sentipenekin lotutako hainbat hitz sartuko ditugu, papertxoetan idatzita: harridura, beldurra, tristura, barregura, etsipena, nazka, haserrea, poza, jakin-mina... Talde bakoitzak bere papertxoak izango ditu (talde guztiek berdinak), eta taldekideak bertatik paper bana ateratzen joango dira, ondokoei erakutsi gabe. Hala, taldekide bakoitzak *bala-bala* hizkeran bere kontaketa egin beharko du, besteek hitza asma dezaten. Adibidez:



Jolas honen helburua, ondo pasatzeaz gainera, gorputz-adierazpenaren eta hitzezkoak ez diren baliabideen garrantziaz ohartzea da.

- ***"Bestearen azalean"***. Inprobisazioak egingo ditugu, banaka. Ikasle bat aterako da, eta irakasleak ogibide bat esango dio (adibidez, "zu lehoi domatzailea zara" edo "zu kale garbitzailea zara"); posible da ogibideak ikasleek beraiek pentsatzea eta papertxoak poltsa batean sartzea ere. Ikasle bakoitzak 5 minutu izango ditu egokitu zaion ogibide horri buruzko azalpenak emateko, 1. pertsonan. Kontuan izan beharko du publikoarentzat ari dela (ikaskideak) eta gorputz-adierazpena zaintzen saiatuko da, aurrez gelan aipatutako elementuak. Herri-hizkera erabiltzea gomendatzen da, naturaltasunaren mesedetan.

Antzezpentxoak bideoz grabatuko ditugu (aurre-testu bezala balioko dute), eta behin guztiak ordenagailura pasa eta ikusteko moduan ditugunean, ikusi egingo ditugu. Ikusi, eta komentatu egingo ditugu, betiere alde onak nabarmenduz eta txarrak azpimarratu gabe. Ikasle bakoitzak bere grabazioari buruz hausnartu beharrekoa:

- *Lasai zaude ala urduri? Naturaltasunez ematen dituzu azalpenak?*
- *Begirada: nora begira zaude?*
- *Keinuak: irribarretsu ala serio zaude? Zure mugimenduak bat datoz esaten ari zarenarekin?*
- *Ahotsa: tonu egokia darabilzu? Abiadura egokian hitz egin duzu? Isilunerik egin al duzu?*
- *Zure ustez, lortu al duzu nahi zenuena komunikatzea?*
- *Guztion artean, ekarpenak egin:
Hurrengo baterako, nola hobetu dezake bere jarduna?*

Bigarren txanda bat egin daiteke, ikasitakoa aplikatzen saiatzeko. Bigarren aldi honetan, denbora izango dute antzezpentxoak prestatzeko. Ogibide horrekin lotutako anekdotaren bat edo umorezko pasadizoren bat ere asma dezakete, kontakizuna borobiltzeko.

Adibide bat:

“Ni suhiltzailea naiz. Txikitatik izan nahi nuen suhiltzailea. Suak itzaltzea da gure lana, eta arriskuan dagoen jendeari laguntzea. Auto istripuak daudenean ere deitzen digute. Ez da lan erraza: ezin izaten dugu beti lagundu eta batzutan jendea besoen artean hiltzen zaigu.

Şasoian egotea komeni da gure lanerako. Aşko entrenatzen dugu. Kaskoa eta buzoa erabiltzen ditugu, eta kamioi gorrietan joaten gara sutea piztu den tokira, sirena piztuta: *ninoninonina*; kamioian ura daramagu, eta mangerak, sua itzaltzeko.

Aurrekoan, mutiko bat arbola baten gainetik jaitsi genuen; puntaraino igo zen eta gero ezin zuen jaitsi! Eta beste behin, ez ziguten ba deitu zirko batetik ihes egin zuen tximino bat harrapatzeko? Ba ederki kostatzen zaitzaigun!”

Bigarren antzezpenak ere grabatu egin daitezke, eta ondoren biak konparatu. Hobekuntzak nabarmenduko ditugu, ez akatsak.

- ***"Za zeu elkarrizketatzaile"***. Ikasleak kazetari bihurtuko dira, eta aspaldiko ogibideei buruzko testigantzak jasoko dituzte (batzuek jada desagertuak, besteak bizirik daudenak). Adibidez: ferratzailea, pregoilaria, itzaina, artzaina, kale garbitzailea, butano partitzailea, neskamea, morroia, karreteroak, esneduna/esneketaria, zorroztailea, barkileroa, arrain saltzailea... Ikus [Antzinako lanbideak](#).


Elkarrizketa bideoan egitea gomendatzen dugu (ikus grabazioak egiteko [Jarraibide orokorrak](#)), gero ikasgelan ikusi ahal izateko, eta elkarrizketatuari argazkia ateratzea ere ondo legoke. Izan ere, ikasleek aurkezpen txiki bat prestatuko dute (elkarrizketatuaren biografia laburra eta beste), bideoa erakustearekin batera ikaskideei azalpenak emateko. Jasotakoarekin, hainbat lanketa egin daitezke ondoren ere. Hona hemen bi aukera:

1. *Grabazio guztietako pasarte onenekin ikus-entzunezkoa(k) prestatzea aspaldiko lanbideei buruz, ikastetxean zein herrian zabaltzeko (lan hau egiteko bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie).*
2. *Bildutako testigantzak erabiliz eta ikasleak narratzaile gisa jardunda, ogibideei buruzko irratsaio bat sortzea. Sustatuko duguna: herriko hizkera erabiltzea, naturaltasunez eta adierazkortasunez. Adibide gisa, ikus [Leitzako irratsaio hau](#).*


Ondo legoke egindako grabazioak [Ahotsak.eus](#) proiektura ekartzea, ahozko ondarearen artxiboa aberasteko (adibiderako ikus: [San Ignacio ikastetxeko ikasleen fondoa](#)).

- ***"Testigantza bila"***. [Ahotsak.eus](#) webgunean bideo pasarte interesgarriak topatuko dituzte. Binaka jarrita (bakarka ere egin daiteke), pasarteak aukeratuko dituzte, gero gelakideei erakusteko. Bi aukera:

1. **Antzinako lanbideei** buruzko pasarte interesgarriak bilatzea (ikus “lanbideak” azpiatala Gaiak loturan), pertsona/bikote bakoitzak bat. Ondoren aurkezpen txiki bat egitea:



2. **Hizkuntza-baliabideei** erreparatzea eta ez edukiari. Bi adibide topatuko ditu pertsona/bikote bakoitzak: bata ona eta bestea ez hain ona. Ahozko baliabideak ondo erabiltzen dituen hiztun bat (komunikatzaile ona) eta komunikatzaile eskasagoa den beste bat (adibidez, ahopean edo baxu hitz egiten duelako, beste aldera begiratzen duelako, ez duelako esaten duena indartzen duen keinurik egiten...). Aurkezpentxoak gertatuko dute:



5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: azalpena, aurkezpena, bideoz jasotako adierazpena... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea (ahozko jardunen bilakaera ikusteko). Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarteak izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten

ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: ahozkoaren ezaugarriak eta baliabideak).

3. Gai: **Betiko kanta-jolasen transmisioa.** Ahozko literatura.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/betiko-kanta-jolasak>

The screenshot shows the website interface for 'ahotsak IKASGELAN'. At the top, there is a navigation bar with buttons for 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materialia', and 'Euskalkitegia'. The main content area features a video player titled 'Betiko kanta-jolasen transmisioa' showing children dancing. To the right of the video is a metadata box with the following information:

Maiak:	DBH
Proiektuak:	EIMA 2.0. Herritarren ahotsak, transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Aisialdia, Kanta-jolasak
	0 puntu 5 izarreko maximotoik
	0 iritzi guztira

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.
2. Betiko kanta eta jolasak izango ditugu hizpide, aurre-ezagutzak aktibatuzeko. Gisa honetako galderak egin ditzakegu horretarako:

- *Nolakoak dira ezagutzen dituzuen kanta-jolasak? Zerrenda egin (biribilean egitekoak, sokasaltokoak, zotz egitekoak...)*
- *Non eta nola ikasi zenituzten?*
- *Zuen gurasoek egiten zituzten jolasak berdinak al ziren? Eta aitona-amonenak? Iritsi al da zuengana garaí bateko kanta-jolasik?*
- *Gustatuko litzaizueke antzínako kanta-jolasak ezagutzea?*

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, *Txantxurrillo* edo *Txantxibiri* abestia garai bateko bizimoduaren isla da. Senide asko izaten ziren etxeetan, eta diru gutxi egoten zen. Aho gehiegi, elikatzeko. Horregatik, garrantzitsua zen seme-alabak ezkondu eta etxetik joatea; alabak bereziki. Semea izaten zen maiorazgoa, etxejabe bihurtzen zena, eta hari fundamentua izatea eskatzen zitzaion. Burla-haizea duen kanta da, abestikoari ez baitzaizkio alabak ezkontzen, eta semeak ganora gutxikoa dirudi (bizarra egin gabe izatea eta arropa zaharrekin ibiltzea da horren erakusle).
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Ezagutzen al zenituzten ikusi ditugun kanta-jolasak?
- Horiek ikusita, gogoratu al duzue besterik?
- Zer iruditzen aítona-amonei jasotakoa haurrei erakustea? Etxeetan egiten al da transmisio hori? Lehen sutondoan biltzen ziren... Zein dira, zuen ustez, gertatu diren aldaketa handienak (teknologia berriak, guraso biak lanean, familia txikiagoak, aítona-amonekin bizi ez...)?
- Kasu batean (*Andra Joxepa tronpetan*) kantari kutsu erlijiosoa kendu diote (*adora Jesukrísto*). Ondo ikusten al duzue kanta-jolasak garai berrietara moldatzea?

3. Bideoan ikusitako kanta-jolasetako bat (edo gelan aipatu direnetako bat) aukeratu, eta jolas egin dezakegu (gelan dugun espazioa eta aukerak kontuan hartuta).

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide (ikasleek aukera dezakete, eta baita ordezko beste ekoizpenen bat proposatu ere edo proposamen bat baino gehiago egin):

- ***“Za zea elkarrizketatzaile”***. Ikasleak kazetari bihurtuko dira, ahozko ondasunaren biltzaile. Elkarrizketatzaile bihurtu, eta herriko kantak eta jolasak jasoko dituzte, adinekoei elkarrizketak eginez. Talde txikietan banatu (2-3 ikasle), eta talde bakoitzak pertsona bat elkarrizketatuko du, bere umetako kanta eta jolasen berri izateko. Galdetegia guztien artean presta dezakete, gelan.

Elkarrizketa bideoan grabatzea gomendatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)), gero ikasgelan ikusi ahal izateko, eta komenigarria litzateke elkarrizketatuari argazkia ateratzea ere. Ikasleek aurkezpen txiki bat prestatuko dute (elkarrizketatuaren biografia laburra, adibidez; nondik ezagutzen duten, etab.), bideoa erakustearekin batera ikaskideei azalpenak emateko.

Ondoren lanketarekin jarraitzeko aukera batzuk:


1. *Grabazio guztietako kanta eta jolas politenekin ikus-entzunezkoa(k) prestatzea, sare sozialen bidez zabaltzeko (bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak emango zaizkie). Posible da gero grabazioak [ahotsak.eus](#) artxibora bideratzea (adibiderako, ikus [Lekarozko Institutuko ikasleen proiektua](#)).*
2. *Jasotako kantak HHko edo LHko ikasleei erakustera joatea.*
3. *Umeak bideoan grabatuz gero, materiala Ahotsak proiektura bidali eta Ikasgelan webgunerako bideo-fitxa berriak ere sor ditzakete (ikasleak agertuko lirateke egile gisa).*
4. *Bideoen erakustaldia egin daiteke ikastetxean.*

- **“Historia egiten”**. [Ikasgelan webgunean](#) sasoi bateko kanta eta jolas ugari daude jasota, eta bakoitzak bere fitxa dauka. Talde txikietan jarri (2-3), eta taldetxo bakoitzak kanta/jolas bat edo bi aukeratuko ditu (ez badira ados jartzen, zotz egin dezakete):

1- Alpargatak urratuta	11- Astoka	21- Dingilin-dangolon
2- Amandre gorringo	12- Artalataiko	22- Don don Kikilikon
3- Andre Madalen	13- Potxoloka	23- Dona dona katona
4- Antontxu zara zu	14- Binbili-bonbolo	24- Egurretan
5- Arre arre mandako	15- San Juan Portaletaña	25- Tren txartelak
6- Goazen baratzer	16- Haria mataza	26- Txingoka
7- Horra hor goiko	17- Kastorreatan	27- Katarramixon
8- Kukurruku	18- Maru-marutxo	28- Libiri eta labero
9- Txirikiletan	19- Orratzetan (+punta eta buru)	29- Tortolosak (hartu + jiratu)
10- Txakurtxua	20- Txapa lasterketa	30- Txingor-gainean



Bideoak ikusi, fitxak aztertu (informazio guztia begiratu) eta sarean informazio gehiago bilatuko dute. Ondoren, aurkezpen txiki bat prestatuko dute. Gelakideen aurrean ahoz (paperik gabe) azalduko dituzte aukeratutako/egokitutako kanta edo jolasen nondik norakoak. Puntu hauek izan ditzakete kontuan:



Fitxak hobetzeko proposamenik izanez gero, [jarri harremanetan](#) Ikasgelan webgunekoekin eta helarazi. Eskertuko dute.

- **“Jolastex”**. Bideoan agertzen diren kanta-jolasak (edo beste batzuk; ikus [Ikasgelan webguneko](#) guztiak) ikasi, erabili eta txikiagoei erakutsi, ikastetxean:

Txakurtxua http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/txakurtxua
Atxia-motxia http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/atxia-motxia
Andra Joxepa tronpetan http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/andra-joxepa-tronpetan
Kiskilla-miskilla http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/kiskilla-miskilla
Arriola marriola http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/arriola-marriola
Kukua korroan http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/kukuarena
Kukua txaloka http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/kukuarena-ii
Txantxibiri edo txantxurrillo http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/txantxibiri-edo-txantxurrillo

Taldeka ipini (4-5 ikasle) eta zirkuitoa egin dezakegu, kanta-jolasak ikasteko. Talde bakoitzak jolas bat prestatuko du. 2 ikasle jolasa esplikatzen eta kanta erakusten geratuko dira, txandaka, gune bakoitzean, gainerakoak gunez gune doazen bitartean.

Ondoren, bozketa egin daiteke, eta jolas politenak aukeratu, gero HHkoei edo LHkoei erakusteko. Egun bat jarri daiteke, umeein patioan jolasak egiteko. Ahal bada, lanketak bideoan grabatzea da onena, aurrera begira ere erabiltzen jarraitu ahal izateko (bideo muntaia txiki bat ere egin daiteke grabatutako kanta eta jolas guztiekin; horretarako, ikasleek edizio programaren bat ezagutzea komeni da).

- **"Sormena lagun".** Kanta-jolasak asmatuko ditugu. Sokasaltorako jolas gutxi dago euskaraz. Eta berdina gertatzen da txalo joz egiten diren esku jolasekin; gehienak gaztelaniaz dira. Zerrenda ditzatela bururatzen zaizkien sokasalto eta txalo jolas guztiak.

Talde txikietan jarri, eta berriak asmatuko dituzte. Letra hutsetik sor daiteke, edo bestela posible da ezagutzen dituzten abesti edo bertsoak kanta-jolas bihurtzea ere. Erabili irudimena!



Sortutako kanta-jolasak gelakideei azaldu, eta denek elkarrekin jolas dezakete. Bideoz grabatzea ondo legoke, eta sortutako kanta-jolas guztiekin muntaia txiki bat ere egin daiteke (ikasleei edizio programaren bat erabiltzen erakutsi). Ondoren, umeei erakustea izango litzateke onena; sortutakoaren transmisioa egitea, alegia.

5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: kanta, jolasa, aurkezpena... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea (ahozko jardunen bilakaera ikusteko). Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarte izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkiok: ahozkoaren ezaugarriak eta baliabideak).

4. Gai: Bertsolaritzaren garapena. Ahozko literatura.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/bertsolaritzaren-garapena>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a navigation menu (Sarrera, Honi buruz, Materiala, Euskalkitegia). The main content area features a video player titled 'Bertsolaritzaren garapena' with a play button. A metadata box on the right contains the following information:

Mailak:	DBH
Proiektuak:	EIIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Euskara, Bertsolaritza
	0 puntu 5 izarreko maximotik
	0 iritzi guztira



Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

- 1.** Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.
- 2.** Garai bateko bertsolaritza izango dugu hizpide, aurre-ezagutzak aktibatuzko. Gisa honetako galderak egin daitezke:

- *Bertsolaritza fenomeno ezaguna eta ongi baloratua da egun. XX. mendearen hasieran, baina, bertsolariek ospe txarra zuten. Zergatik zela uste duzue?*
- *Nolakoa zen sasoi bateko bertsolaritza? Non kantatzen zuten eta zer eratako bertsoak?*
- *Zéin dira garai bateko bertsolari ezagunenak? Bota izenak! Zer dakizue haiei buruz? Badakizue bertsorik?*
- *Bertsolaritzaren historian hainbat aldi bereizten dituzte adituek. Zer aldi dira?*

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez: *ikuilatxurra* (sardea, simaurra zein belarra jasotzeko erabiltzen den baserriko tresna).
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.



Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zertan desberdintzen dira Txirritaren garaiko bertsolaritza eta gaur egungoa?
- Bertsolaritza garai berrietara egokitzen joan da, arrakastaz. Adibidez, gero eta neska bertsolari gehiago dago. Ezagutzen al duzue adineko emakume bertsolaririk? Zein izan ziren aitzindariak (ikus [historiako emakume bertsolariak](#)).
- Bideoan “Amurizaren eskola” deitzen dioten hori oso aro zabala da. Zuen ustez, posible da aldi diferenteak bereiztea? Ba al dago mugarri izan den gertaera edo bertsolaririk? Zergatik?
- Egungo bertsolari batzuek “eskola zaharrekoak” direla esaten da. Zer esan nahi du horrek?
- Herriko bertsolaritzari buruz jardun (atzoko eta gaurko bertsolariak aipatu, giroa...).

3. Azken ekoizpena. Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide (ikasleek aukera dezakete, eta baita ordezeko beste ekoizpenen bat proposatu ere edo proposamen bat baino gehiago egin):


- ***"Za zea elkarrizketatzaile."*** Ikasleak kazetari bihurtuko dira. Herriko/eskualdeko bertsolariak elkarrizketatuko dituzte. Galderak guztien artean presta ditzakete.

Elkarrizketa bideoan grabatzea gomendatzen dugu (ikus jarraibide orokorrak, enkoadre kontuak batez ere), gerora ere erabili ahal izateko, eta komenigarria litzateke elkarrizketatuari argazkia ateratzea ere. Jasotakoarekin, hainbat lanketa egin daitezke, taldeka:

1. *Elkarrizketa idatziz jarri, eta argitaratzeko moduan ipintzea (titulu nagusia, azpтитulua, sarreratxoa, galde-erantzunak, argazkia, argazki-oina...)*
2. *Grabazioa editatu eta elkarrizketatuaren pasarte onenekin ikus-entzunezko bat sortzea, sare sozialen bidez zabaltzeko (bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute: ereduak eman). Ikasleek off-eko ahotsa graba dezakete eta sasoi bateko argazkiak ere erabili (elkarrizketatuari eskatu).*
3. *Elkarrizketatuaren testigantza erabiliz eta ikasleek narratzaile lana eginez (ahotsak grabatu), irratsaio bat sortzea. Musika eta soinu efektuak ere erabil daitezke. Adibide gisa, ikus Leitzako irratsaio hau.*


1 eta 2 batera ere egin daitezke: adibiderako, ikus Jakintza ikastolako ikasleek egiten dituzten elkarrizketak eta lanketak.

- ***"Sormena lagun."*** Sormena erabili, eta bertsoak sortuko ditugu. Neurri motzak aukeratuko ditugu (4, 6 edo 8 lerroko bertsoak); koplekin has gaitzke (4 lerro), eta gero bertsoak sortu.

- 
- Gaia guztion artean erabakiko dugu
 - Gero nor bere koplak/bertsoak sortuko ditu. Ideia pentsatu: zer esan nahi dut?
 - Kopla/bertsoa osatu. Horretarako, bertsotarako arbel digitala erabil dezakegu.
 - Doinua aukeratu. Doinutegia erabil dezakegu
 - Egindakoa gelakideekin partekatu: kantatu!
 - Bideoa erakutsi

Aukera bat: kopla/bertso guztiak grabatu eta bideo-koplak sortu, horretarako guztion artean marrazkiak eginda edo irudi aproposak aurkituta (bideoak editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsi, marrazkiak/irudiak eta audioa elkartzeko).

- ***"Historia egiten"***. Bertsolariari buruz gehiago jakiteko, ikerketa txikiak egingo ditugu. Sasoi bateko bertsolariak eta haien bertsoak ezagutzea da helburua. Horretarako, proposatzen duguna, ikasle bakoitzak (binaka ere egin daiteke) bertsolari bat aukeratu eta hari buruz jakingarri batzuk topa ditzala:

- 
- Biografia laburra eta argazkia
 - Bertso bat (politena aukeratu!)

Fitxa modukoak sortuko ditugu, gero gelako hormetan ipintzeko. Bertsolariaren argazkia, izen-abizenekin, eta azpian bertsoa (letra handiz, ondo ikusteko moduan). Fitxaren ahozko aurkezpena ere egingo dute: biografia azaldu eta bertsoa kantatu.

Hona hemen sasoi bateko bertsolari ezagun batzuk:

Pernando Amezketarra (1754-1823)	" Xenpelar " (1835-1869)
Jose Maria Iparragirre (1820-1881)	" Bilintx " (1831-1876)
Pierre Topet " Etxahun " (1786-1862)	" Pello Errota " (1840-1919)
Pello Mari Otaño (1857-1910)	Manuel Lujanbio " Txirrita " (1860-1936)
Iñaki Eizmendi " Basarri " (1913-1999)	" Uztapide " (1909-1983)

Bertsoak audioan eta bideoan aurkitzeko, bi bide: [BDB](#) (bertsolariaren izena jarrita) eta [Ahotsak.eus](#).



- *"Mundu zabalean"*. Mundura begira jarriko gara, beste toki batzuetan zer gertatzen den jakiteko. Izan ere, inprobisazioa ez da bertsolaritzara mugatzen. Munduko kultura askotan inprobisatzen dute, bakoitzak bere erara (kantatzearekin batera musika tresnak joz, esaterako...). Taldeka egiteko lana izango da hau (2-3 lagun taldeko). Talde bakoitzak herrialde bat aukeratuko du, eta hango inprobisazio moldea ikertuko du. Ondoren, aurkezpen txiki bat gertatuko du, gutxienez honako datuak aipatuz:

- *Tokia (adibidez, herrialde katalanak)*
- *Inprobisazio moldearen izena (glosa, jota, dezima, regueifa, launedda, sairi...)*
- *Historia/informazio pixka bat (inprobisazioaren ezaugarriak, zein hizkuntzatan kantatzen duten...).*
- *Adibide bat ipini (bideo/audio bat bada hobeto).*
- *Iritzia (bertsolaritzarekin dituen desberdintasunak, gustatzen zaidan ala ez eta zergatik...)*

Bilaketa hemendik has dezakete: [Kulturarte mapa](#). Adibide batzuk ikusteko: [Europa bat-batean](#).

4. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: azalpena, aurkezpena, bertsoa... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea (ahozko jardunen bilakaera ikusteko). Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarte izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#)).

5. Gai: Euskara ikasteko prozesua. Euskararen aberastasuna.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskara-ikasteko-prozesua>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a colorful header. Below the header are navigation buttons: 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main content area features a video player with the title 'Euskara ikasteko prozesua'. A red arrow points to the video player. To the right of the video player is a metadata box with the following information:

Mailak:	DBH
Proiektuak:	EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Integrazioa, Euskara
	0 puntu 5 izarreko maximotik
	0 iritzi guztira

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu: euskara ikasteko prozesua. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu. Gisa honetako galderak egin daitezke horretarako:

- *Euskara hizkuntza zaila dela diote, munduko hizkuntza zailenetako bat dela... egia al da? Euskara ez ikasteko aitzakia moduan ere erabil daiteke uste hori?*
- *Ezagutzen al duzue euskara ikasi duen edo ikasten ari den heldurik? Zenbat denboran ikas daiteke euskara? Hizkuntzak ikasteko prozesuari buruz hausnartu.*
- *Eta ezagutzen duzue euskara ikasi duen atzerritarrik? Nongoak dira? Zergatik ikasi dute?*

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu.
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren


1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, taldeka:

- Bideoko pertsonak ondo hitz egiten al dute euskaraz?
- Zer sentimendu eragiten dizue atzerritarrek euskaraz hitz egiten eta euskara defendatzen ikusteak?
- Gero eta atzerritar gehiagok ikasten dute euskara. Euskara jakitea "plus" bat al da? Zer eskaintzen du? Integratzeko balio du? Ikus Euskara, integrazio-hizkuntza bideoa.
- Ingurune euskalduna izan ala ez... horrek zenbateraino baldintzatzen du euskara ikasteko nahia? Ikus Geuk be ondarrutarrez.
- Hizkuntzak ikasteko prozesuan zein dira eman beharreko pausuak? Zer da zailena?

3. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide (ikasleek aukera dezakete, eta baita ordezeko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- ***"Za zera elkarrizketatzaile"***. Kazetari bihurtu, eta euskara ikasten ari den norbait elkarrizketatu. Bi-hiru ikasleko taldeetan, galderak aurrez gelan prestatuta. Euskaltegi batera joango gara, bertako ikasleak elkarrizketatzera (talde bakoitzak bi-hiru ikasle). Galdetegia laburra eta erraza izango da. Adibidez:



- 
- Izen-abizenak
 - Nongoa zara?
 - Zergatik ari zara euskara ikasten?
 - Nolakoa ari da izaten euskara ikasteko prozesua (zaila, erraza...)?
 - Zenbat denbora daramazu ikasten?

Elkarrizketa bideoan egitea gomendatzen dugu, gero ikasgelan ikusi ahal izateko (elkarrizketak egin aurretik, ikus [jarraibide orokorrak](#)). Ikasleei egindako grabazioak editatu egingo dituzte. Talde bakoitzak muntaia txiki bat egingo du (bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie). Aurkezpen txiki bat ere prestatuko dute, bideoa erakutsi aurretik ikaskideei azalpenak emateko.

Bideo guztietako pasarte onenekin beste ikus-entzunezko bat presta dezakete, dokumental labur gisakoa, ikastetxean eta herrian ezagutzera emateko.

- ***"Gaur egunera begira"***. Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Euskal Herrian? [101_L proiektua](#) ezagutuko dugu guztion artean. [101.ahotsak.eus](#) webgunean saltseatuko dute ikasleek.

Ondoren, ikasle bakoitzak hitzun hauetako baten pasarteak aztertuko ditu (guztiak euskaraz elkarrizketatuak):

Davide: Galizieraren egoera	Jordi: Katalanaren egoera	Vahe: Armeniera munduan
Bake: Seme-alabei mandinkeraz	Irina: Errusiako hizkuntzak	Fariba: Persiera edo farsiera
Cilla: Finlandiera edo suomiera	Helen: Alabarekin ingelesez	Tarana: Azerbaijanera
Wednesday: Bissauko kriolera	Janusz: Polonierari buruz	Miki: Italierari buruz
Zishan: Urduera eta punjabera	Aurel: Albaniera	Petra: Alemana
Mia: Finlandiako hizkuntzak	Barry: Gaelikoz eskolan	Chuserra: Aragoiera
Truck: Vietnamgo hizkuntzak	Andreea: Errumaniakoa	Len: Gaelikoa eta ingelesa
Jorge Naur: Mankanyera	Danitz: Peruarra	Diana: Lituaniakoa



Egokitu zaien edo aukeratu duten hiztunaren pasarte guztiak/gehienak ikusi, eta esanguratsuak iruditzen zaizkien bi pasarte aukeratuko dituzte, gelakideei erakusteko. Aurkezpen txiki bat ere prestatuko dute. Banaka, binaka edo talde txikietan egin daiteke. Jarrai dezaketen egitura:

- *Nor da hiztuna? Biografia azaldu: non jaio zen, non bizi den, noiz eta zergatik etorri zen, euskara ikasteko prozesua eta zergatia...*
- *Hiztunaren bi bideo pasarte erakutsi gelan*
- *Azalpenak aukeratutako pasarteei buruz: zergatik aukeratu dituzten, iritzia eman...*

Atzerriko hizkuntzak hitz egiten dituzten ikasleei beste aukera hau ematea ere ondo legoke: nahi badute, beren biografia azal dezatela. Aurkezpen bideo bat ere graba dezakete (bi hizkuntzatan: euskaraz eta etxeko beste hizkuntzan), ikasgelan erakusteko.


- ***"Sormena lagur"***. Euskal Herrian hitz egiten diren beste hizkuntza batzuetako hitzak ikasten saiatuko gara: "kaixo", "zer moduz?" eta "oso ondo" bezalako oinarrizko hitzak ikasiko ditugu. Lehenengo, gelako hizkuntza guztiak jasoko ditugu. Ikasleek arbelean jar ditzakete (beste alfabeto batean idazten badira –zirilikoa, arabiarra...-, ondoan ahoskatzen den modua jarriko dute). Aski badira, horrekin egingo dute sormen lana (bestela, Euskal Herrian hitz egiten diren beste hizkuntza batzuk ere aintzat har ditzakegu; horretarako, ahotsak.eus webgunera jo dezakegu: "Gaiak" > "Hiztegia 101L"). Girotzeko, *Mihiluze* telebista saioko bideo hau ere ikus dezakegu: ['Kaixo' esateko era ezberdinak](#).

Zer egin hitz horiekin? Hona hemen bi aukera (talde bakoitzak nahi duena aukera dezake):

- **Abesti bat sortu**, euskaraz, beste hizkuntza batzuetako hitzak tartekatuz. Bertso bat ere izan daiteke. Gelakideekin partekatu.
- **Bideo bat grabatu**. Ikasle bakoitzak hitz bat esan dezake, eta ondoren muntaia txiki bat egin (horretarako, ikasleek editatzeko programak ezagutu beharko dituzte). Adibiderako ikus: Donostiako hizkuntzak. Egindako lana gelakideekin partekatu.

- **"Bestearen azalean"**. Ikasleek hizkuntzekin izandako esperientziak partekatuko dituzte.


Batzuentzat ama hizkuntza ez da euskara izango. Zenbaitek atzerriko hizkuntzaren bat jasoko zuten etxean. Beste batzuek hizkuntzaren bat ikasten jardungo dute orain (ingelesa, adibidez). Gertatutako anekdotak eta bizipenak batuko ditugu. Eta horiekin esketxak sortuko ditugu, talde txikietan jarrita.

- 
- Istorioa pentsatu
 - Pertsonaiak eta gidoia asmatu
 - Esketxa ikasi eta entseatu
 - Janzkera eta mugimenduak zaindu
 - Ikaskideen aurrean antzeztu

- 4. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek, gelakideei euren lanaren emaitzak ezagutarazteko (bideoa, antzezlan, abestia, aurkezpena...). Aurkezpenak laburrak izango dira eta ondo legoke bideokamerarekin grabatzea (ahozko jardunen bilakaera ikusteko). Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#)).

6. Gai: Euskalkiak hezkuntzan eta hedabideetan. Euskararen aberastasuna.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskalkiak-hezkuntzan-eta-hedabideetan>



Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

- 1.** Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.
- 2.** Euskalkien erabilera izango dugu hizpide, aurre-ezagutzak aktibatuzko, gisa honetako galderen bitartez:

- *Herrian ba al dago bertakoa den euskalkirik? Hala bada, non erabiltzen da (kalean, etxean, sare sozialetan, herri aldizkarian, ikastetxean...)?*
- *Zuek erabiltzen al duzue euskalkirik? Erabilera informala da ala formala ere bai?*
- *Entzuten al duzue zuena ez den beste euskalkirik? Non (kalean, telebistan...)?*
- *Zer leku dute euskalkiek ikastetxean? Ikasi duzue euskalkian hitz egiten eta idazten? Irakasleek erabiltzen dituzte? Euskalkiei buruzko zer mezu iritsi zaizue? Noiz erabili behar dira?*

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Esate baterako: *Ainitz* (asko); *hagitz* (oso); *erran* (esan); *solastu* (hitz egin); *biño* (baina); *bertzenaz* (bestela); *amatxi* (amona); *kapable* (gai); *bertze* (beste); *izanen* (izango); *martitzena* (asteartea), *egueztena* (asteazkena), *eguen* (osteguna), *barikue* (ostirala), *zapatue* (larunbata) eta *domekie* (igandea); *gatxa* (zaila); *pentsetan* (pentsatzen); *aitu* (ulertu); *allegatzia* (iristea); *gura* (nahi); *eurak* (haiek berak)...
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.



Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu.

Bideoko gazte gehienek diote euskalkiak esparru formalagoetan ere erabili beharko liritekeela, ez bakarrik kalean.

- Zein da zuen iritzia? Ondo legoke euskalkian nola idatzi jakitea (aditzak, idaztarauak...)? Ala hobe da bakoitzak nahi bezala erabiltzea?
- Egokia al da euskalkiek ikastetxean (ikasketa-plangintzetan) duten lekua? Ez bada hala, zer leku izan beharko lukete?
- Euskarazko hedabideetan, zein da euskalkien presentzia (marrazki bizidunetan, telesailetan, Teleberrian...)? Egokia al da?
- Gaztea irratian erabiltzen duten euskara gertukoa egiten al zaizue?

Bideo hau ikus dezakegu, ETB1eko “Zuek hor eta ni hemen” saiokoa: [Zein da euskalki xarmangarriena?](#) Onintza Enbeitaren [bideo hau](#) ere ikus dezakegu. Iritziak partekatu.

3. Hau euskalkia duten herrietako ikastetxeetan egin daiteke: Zein dira gure herriko euskalkiaren ezaugarriak? Zer berezitasun ditu? Ezaugarriak aterako ditugu guztion artean. Informazioa bilatuko dugu euskalkiaren gainean. Herriko hitz eta esamolde bereziekin zerrendatxo bat egin dezakegu. Herriko hedabideetan erabiltzeko modukoak dira? Girotzeko, *Tribuaren berbak* saioko bideo hau ikus daiteke: [Maule-Bilbo-Azpeitia](#)

4. [Euskalkitegia](#) jolasa erabiliz, ea zenbat asmatzen dituzten!

5. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide (ikasleek aukera dezakete, eta baita ordezkoko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- **“Sormena lagur”.** Istorio bat asmatu, herriko euskalkia (edo bestela, hainbat euskalkitako hitzak, ahalik eta gehien) erabilita. Ikasle bakoitzak hitz bat esango du. Gela taldeka bana daiteke. Istorioa grabatu egingo dute ikasleek (poltsikoko telefonoarekin egin daiteke), eta gero gelakideekin partekatu (bozgorailuak erabil daitezke).



Hitzekin jolas egitea eta ondo pasatzea da helburua (ez dugu istorioaren kalitatea neurtuko, ezta zentzua ere; berdin dio surrealista baldin bada).

- **“Ika-mika”.** Euskalkiak eta batua elkarren osagarri dira. Euskalkiek batua aberasten dute. Alabaina, ika-mikak ere sortzen dira batzuetan: euskalkiak-batua borroka moduko bat dago aspalditik (60ko hamarkadan euskara batua sortu zenetik; ikus [Euskalkiak eta euskara batua](#) bideoa). Adibiderako, Iñigo Martinez futbol jokalaria kasua aipa daiteke. Realetik Athletic-era joan zenean ondarrutarrez idatzi zuen agur-eskutitza, eta sare sozialetan eztabaida sutua sortu zen euskalkien erabileraren gainean (2018ko urtarrilean). Ikus [albistea](#).

Eztabaida egingo dute ikasleek, bi taldetan banatuta. Batzuk eremu formaletan euskalkia erabiltzearen alde egongo dira. Besteak, berriz, euskalkiak eremu informalerako soilik direla esango dute. Talde bakoitzeko kideek beren iritzia defendatuko dute, horretarako argudioak eta azalpenak emanaz. Eztabaida formalen ezaugarriak azalduko ditu irakasleak: nola argudiatu, zer formula edo testu antolatzaile erabiltzen diren, etab. (ikus [sekuentzia didaktiko hau](#), bereziki 84-85 orrialdeak). Hala, ikasle talde bakoitzak argudioak prestatuko ditu, eztabaida egin aurretik.

Ikasleak asko badira, talde txikiagoetan ere egin daiteke (lau-bost laguneko taldeak).



- ***“Eman iritzia”***. Euskalkiekin izandako harremanari buruz hausnartu eta euskalkiei buruzko iritzia ematea da jarduera honen helburua. Beren esperientzia kontatuko dute ikasleek, sentimenduen ikuspegitik. Ez dute ezer idatzi beharko. Beren sentipenak ahoz azalduko dizkiete ikaskideei, eta bat-bateko jarduna izango da, neurri handi batean.

Giro informala lortzeko, lurrian eserita egin daiteke, biribilean jarrita. Banaka hitz egingo dute ikasleek, txandaka, euskalkiekin eta euskararekin izan duten esperientzia kontatzeko (biribilean eseritako hurrenkeran egin dezakete). Aukera bat: irakaslea ikasleei galderak egiten joatea, hitz eginarazteko. Beste aukera bat: galderak edo puntuak arbelean jartzea, hala ikasleek gida bat izan dezaten.

Pentsarazteko eta hitz eginarazteko, galdera hauek erabil ditzakegu:

Euskara

- *Noiztik dakizu euskaraz? Nola ikasi zenuen?*
- *Zer da euskara zuretzat (inposatutako hizkuntza, eskolako hizkuntza / etxekoa, gurea, maitea...)?*
- *Euskarak ba al dauka modu informalean erabiltzeko hitz eta esamolde nahikoa?*

Euskalkiak


- *Zer harreman duzu euskalkiekin (gertukoak zein urrutikoak)?*
- *Zure euskalkia. Baldin baduzu: Noiztik? Nola ikasi zenuen? Non erabiltzen duzu? Euskalkiak ba al dauka identitatearekin zer ikusirik zuretzat? Batuan ala euskalkian hizketan berdin sentitzen zara? Ez baduzu: falta igartzen duzu? Beste batzuek (euskalkidunek) zure “euskalduntasuna” zalantzan jarri dutela iruditu al zaizu inoiz? Zer sentitzen duzu (pena, amorrua, indiferentzia)...?*
- *Besteen euskalkiak. Interesik eta jakin-minik pizten al dizute? Gustura ikasiko zenuke euskalkiren bat? Arrotzak zaizkizu ala gertukoak? Beste toki batzuetako jendearekin komunikatzeko, aldatzen al duzu zure euskara?*

Beste hizkuntzak

- Beste zer hizkuntza dakizkizu? Joerarik bai erdarara jotzeko? Noiz? Norekin? Zergatik?
- Hizkuntza eta nortasuna. Zer punturaino daude lotuta?

- **"Jolasean"**. Jolas bat egingo dugu. Horretarako, gela hiru taldetan banatuko da: A, B eta D. Gazte hiztegira jo eta euskalki desberdinetan erabiltzen diren esamolde eta hitz erakargarriak bilatuko dituzte ikasleek.

Ikasle bakoitzak gustuko hitz edo esamolde bat aukeratuko du eta bi aldiz idatziko du, bi papertxotan. Papertxo horiek beste taldeei emateko dira. Beste papertxo batean, berriz, hitz edo esamolde horren sinonimo bat edo azalpena idatziko du, eta berak gordeko du. Adibidez:



Esamoldea birritan idatzi; beste bi taldeei emateko. Azalpena behin idatzi, tolestu eta gorde. A taldekoek idatzitako hitz eta esamoldeak B eta D taldeei emango dizkiete. B taldekoenak A eta D taldeentzat izango dira. Eta D taldekoenak, berriz, A eta B taldeentzat. Dena prest dago jolasa hasteko!

- **Helburua:** bikoteak egitea. Hitz edo esamolde bakoitzari sinonimoa edo azalpena aurkitzea.
- **Nola jolastu?** Talde bakoitzeko kideak azalpenak irakurtzen joango dira, banaka. Papertxoan jartzen duen azalpena irakurriko dute, eta beste bi taldeetakoek bikotea aurkitu beharko dute.

Bozeramaile bat izendatuko da talde bakoitzean, erantzunak emateko, bestela eromena izan daiteke. Talde bakoitzak bi aukera izango ditu. Txandaka erantzungo dute. Asmatzen duen taldeak puntu bat lortuko du.


Ikasleak asko baldin badira, hiru talde egin beharrean lau ere egin daitezke. Kasu horretan, papertxo gehiago egin beharko dira. Hitza edo esamoldea hiru aldiz idatzi beharko da (bi aldiz idatzi beharrean), gero gainerako hiru taldeei emateko.

- 6. Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: azalpena, aurkezpena, antzezlan, bideoz jasotako adierazpena... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea (ahozko jardunen bilakaera ikusteko). Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarte izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: ahozkoaren ezaugarriak eta baliabideak).



7. Gai: Euskalkiak eta umorea. Euskararen aberastasuna.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskalkiak-eta-umorea>



Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.
2. Euskalkiak izango dira hizpide, aurre-ezagutzak aktibatuzko. Herri hizkeretan hitz eta esamolde adierazkor asko erabiltzen dira, tokian tokiko euskarari naturaltasuna, informaltasuna eta grazia berezia ematen diotenak. Gisa honetako galderak egin daitezke:

- *Zuek erabiltzen al duzue euskalkirik? Hala bada, guztien artean hitz eta esamolde berezi batzuk zerrendatu. Arbelean idatz ditzakegu.*
- *Ezagutzen al duzue zuena ez den beste euskalkirik? Zer iruditzen zaizue? Oso desberdinak dira? Eta inguruko herrietako euskara? Berezitasunak aipatu.*
- *Zuen ustez, euskalkiek ematen al dute umorea egiteko biderik? Nola? Zergatik?*

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu. Aukera bat: testua inprimatu eta ikasleei banatzea, nabarmendu nahi dutena edo ulertu ez dutena apuntatzen joan daitezen.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Esate baterako, euskalkietako hitzak: *emendau* (itzali), *lepo* (beteta, topera), *yiya/yaitsun/kasi-kasi* (ia-ia), *juen/jun/fan* (joan), *fan binaz* (joan behar naiz), *kabiru!* (lasai egon, ez harrotu!), *goitti-beheitti/goiti-beheiti* (gora eta behera), *solasin* (hizketan), *erraiten* (esaten), *gehixau* (gehiago), *txantxikuarrak* (oñatiarrak), *xako* (zaio), *xat* (zait), *erran* (esan), *prefosta* (zalantzarik gabe), *haboro* (gehiago), *zonbait* (zenbait), *paseten* (pasatzen), *deus* (ezer ez), *txandagaz* (txandarekin)...
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.



Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu.

- Bideoako gazteek ondo pasatzen dute beste herri eta euskalki batzuetako hitzak eta esamoldeak erabiliz. Zer hitz dira zuek erabiltzen dituzuenak? Esan grazia egiten dizueten hitz batzuk. Herri hizkerakoak dira? Eta beste hizkuntza batzuetako hitzak, erabiltzen al dituzue?
- Ba al duzue imitaziorik egiteko joerarik? Adibideak jarri. Ikasleak euskalkien imitazio batzuk egitera animatu. Gazteen erreferenteei buruz hausnartu: nondik jaso dituzue?

Ez da erraza zurea ez den hizkera erabiltzea... eta are gutxiago bertsoan baldin bada! Bi bideo hauetako bat ikus dezakegu, adibide gisa: Maialen Lujanbio bizkaieraz eta Igor Elortza gipuzkeraz eta Buruz burukoa bizkaieraz.

3. Umorearen eta isekaren arteko marra fina izaten da zenbaitetan: bestea gutxieste dakar batzuetan (nahita ala nahi gabe). Noiz da zilegi herri hizkerek umorea egitea eta noiz ez? Adibidez: oso ohikoa da euskaldunak imitatzen baserritarrarena egitea, gaztelaniaz gaizki hitz eginez eta “pues” esanez. Kasu horri buruz hausnartuko dugu, eta ikasleek beren iritzia emango dute:



▪ Zer iruditzen zaizue? Barregarria da ala iraingarria?


Iker Mundianoren testigantza hau ere ikus daiteke. Beste egoera batzuk ere aipa ditzakegu.

4. Euskalkitegia jolasa erabiliz, ea zenbat asmatzen dituzten!
5. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide (ikasleek aukera dezakete, eta baita ordezkotako beste ekoizpenen bat proposatu ere edo proposamen bat baino gehiago egin):
- ***“Sormena lagun”***. Txistek kontatuko ditugu, herri-hizkeran. Norbere euskalkian izan daiteke ala beste edozein euskalkiren kutsua izan dezakete. Txiste maratonia egingo dugu. Ahal dela, ikasle guztiek kontatuko dute txisteren bat. Ea denen artean zenbat txiste kontatzeko gai diren! Ikasleak ez badira erraz animatzen, aukera bat: bi taldetan banatzea, eta txandaka kontatzea txistek.

- **"Sormena lagun".** 2-3 laguneko taldeetan banatu, eta talde bakoitzak bi bertso asmatuko ditu, herriko euskalkian edo beste euskalki batean. Umore ukitua baldin badute, askoz hobeto!

Bertso giroa sortzeko, umorezko bertsoen bideo pare bat ikus daitezke. Hona hemen zenbait adibide: [Depilatzeko prest?](#), [Momentu itxelak](#), [Goazen telesaileko gidoilariak](#) eta [Irakurri gabeko liburuen defentsa](#).



- 
- Doinua eta neurria aukeratu
 - Gaia eta kontatu nahi duzuna zehaztu
 - Bertsoak osatu, azken puntutik hasita. [Arbel digitala](#) erabil dezakezu. Doinua aukeratu. Ikus [doinutegia](#).
 - Ikaskideen aurrean kantatu

- **"Jolasten".** Oraingo gaztetxoek ezagutzen al dituzte kantu tradizionalak? Girotzeko, kantuekin bikoteak egiteko jolas hau ikus dezakegu, Mihiluze saiokoa (lehiakideek emaitzak esan aurretik bideoa geratu, eta ea ikasleek asmatzen duten): [Pareak bai](#).

Ondoren, euskalkian kantatutako abesti batzuk ezagutu eta aztertuko ditugu. Talde bakoitzari (3-4 pertsona) kanta bat egokituko zaio (zotz eginda edo eurek aukeratuta). Letra bere egingo du (letra aurkitu, idatziz ipini, aztertu, ulertu eta ikasi), entseatu eta gelan kantatu (gelakideekin partekatuta). Karaokea antola daiteke, eta saioa grabatu.

Proposamen batzuk (Mihiluzeko bideoan ere aipatzen dira herri-hizkeran kantatutako zenbait):

1-Ain1: <u>Gaban arnasa</u>	8-Gozategi: <u>Emoistazu muxutxue</u>	15-Su ta gar: <u>Eguen bat</u>
2-Tapia eta Leturia: <u>Karmentxu</u>	9-The Uskis: <u>Katuek bezala</u>	16-Urgabe: <u>Lamie</u>
3-Urgabe: <u>Ainhoa</u>	10-Gatibu: <u>Euritan dantzan</u>	17-Gatibu: <u>Bizitzen badakit</u>
4-Gatibu: <u>Ez naizu epaitu</u>	11-Amaia Zubiria: <u>Bertsuak jarri dizkat</u>	18-Xabier Lete: <u>Gizon arruntaren koplak</u>
5-Pantxoa eta Peio: <u>Urtxintxak</u>	12-Gatibu: <u>Maitte</u>	19-Oskorri: <u>Markoxen txerrix</u>
6-Erramun Martikorena: <u>Xorieri mintzo zen</u>	13-Niko Etxart eta A. Duhalde: <u>Euskal Rock and Roll</u>	20-Benito Lertxundi: <u>Balearen bertsoak</u>
7-Pier Paul Berzaiz: <u>Baratze bat</u>	14-Gatibu: <u>Urepe!</u>	21-Oskorri: <u>Katuen testamentue</u>



Gelan entzundako abesti guztien artean gehien gustatzen zaiena aukeratu, eta guztiek batera lipdub bat egin dezakete. Lipdub-a dena segidan grabatzen da, eta ez dauka edizio lanik. Adibiderako ikus Seguran egin zutena: Gizon arruntaren koplak.

- *"Bestearen azalean"*. Imitazioak egin, euskalkian hitz egiten edo euskalkietako hitzak eta esamoldeak erabiliz. Taldeka egiteko ariketa da (3-4 ikasle). Bi aukera emango zaizkie eta ikasleek erabaki dezatela zer egin nahi duten:

- a. **Antzerki esketx labur bat.** Istorioa pentsatu, pertsonaiak aukeratu... entseatu eta antzeztu. Gaia: librea. Antzeztutako txiste bat ere izan daiteke. Beste aukera bat: Gazte hiztegiko hitz edo esamolde bat aukeratu, eta hori hartzea ardatz moduan umorezko esketxa egiteko.

- Istorioaren nondik norakoak erabaki
- Pertsonaien izaera eta jarrerak zehaztu
- Gidoitxoa idatzi: gertaerak eta elkarrizketak
- Rolak banatu eta atrezzoak zein jantziak pentsatu
- Entseguak egin
- Ikaskideen aurrean antzeztu

- b. **Abesti baten bertzioa.** Abesti bat aukeratu, eta bertzio umoretsua egingo dute. Letra berria asmatu, ikasi, entseatu eta prest daudenean, ikaskideen aurrean kantatuko dituzte bertzio guztiak, txandaka. Aukera bat: bideo txiki bat prestatzea abestiarekin (grabatutako irudiekin, marrazkiekin, argazkiekin...).

- Abestia aukeratu
- Letra lortu edo transkribatu
- Letra berrirako gaia eta istorioa pentsatu
- Letra berria sortu eta ikasi
- Entseguak egin
- Ikaskideen aurrean kantatu

Inspirazio iturri moduan, Wazemank:

JATORRIZKOA	BERTSIOA
<u>Korrika (Egan)</u>	<u>Kurrinka</u>
<u>Ai Anselma (Joselu anaiak)</u>	<u>Ai ze pelma</u>
<u>No hay tregua (Barrikada)</u>	<u>Selektibidad</u>
<u>Arratsalde honetan (Sorotan Bele)</u>	<u>Goizeko bostetan</u>
<u>Kupela (Epelde ta Larrañaga)</u>	<u>Aldeintzak hemendik</u>

Aurreko jarduera egitean ikasitako abestien bertsiok egitea da aukera bat. Edo gustuko edozein abesti izan daiteke. Jatorrizko abestiak ez dauka euskaraz izan beharrik; beste hizkuntza batetik ere itzul daiteke. Adibiderako ikus: MP5 taldearen '[Bizikletia kandau](#)', Zesuma taldearen '[Maria Jesus](#)', Ingoaldeu taldearen '[Buelta bat eta etxera](#)' edo Mister Euskaldunen '[Txuleta sagardo](#)'.

- 6. Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: abestia, antzezlan, txistea... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea (ahozko jardunen bilakaera ikusteko). Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#)).



8. Gai: Euskararen kontrako neurriak. Euskararen historia.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskararen-kontrako-neurriak>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a colorful header. The main content area is titled 'Euskararen kontrako neurriak'. Below the title is a video player showing an elderly woman speaking. To the right of the video is a sidebar with the following information:

- Mailak:** DBH
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Euskara eta literatura
- Gaiak:** Oroimen historikoa, Euskara

At the bottom of the sidebar, there are two lines of text: '0 puntu 5 izarrerako maximotik' and '0 iritzi guztira'.

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.
2. Euskararen kontrako jarrerak eta neurriak izango ditugu hizpide, aurre-ezagutzak aktibatuzeko, gisa honetako galderen bitartez:

- *Euskaraz hitz egiteko aukera izan al da beti hemen? Eman azalpenak eta iritziak.*
- *Zuen gurasoek euskaraz ikasi al zuten eskolan? Eta zuen aitona-amonek?*
- *Euskararen kontrako jarrerarik ezagutu duzue zuek? Euskaraz hitz egiteagatik erantzun txarra jasotzea, adibidez. Hala bada, azaldu gertatutakoa eta nola sentitu zineten.*

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Euren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu.
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.



Bideoa ikusi ondoren


1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zer sentitu duzue bideoa ikustean? Ezerke harritu al zaituzte? Eman iritzia.
- Zergatik zegoen galarazita eskolan euskaraz hitz egitea? Eztabaïdatu. Iritziak jasó.
- Zure herrian gauza bera gertatu al zen? Familian edo inguru hurbilean entzun al duzue halakorik?
- Zenbat zigor mota agertzen dira? Guztion artean zerrendatu. Zer iruditzen zaizkizue zigor horiek?
- Eskolan euskara erabiltzeko aukera dugu orain. Baloratzen duzue? Inposaketa moduan ikusten duzue? Hala bada, zer egin hori aldatzeko?
- Gaur egun euskarak ba al du mugarik eta kontrako jarrerarik kalean?
- Euskararen ofizialtasuna berdina al da Euskal Herri osoan?

3. Sasoi bateko eraztunaren zigorrean oinarritutako esperimentu bat egin dezakegu. Hitz debekatua esaten duenari emango zaio eraztuna (beste aukera bat: gaztelaniaz hitz egin duenari ematea). Hitz debekatu moduan, asko erabiltzen den hitzen bat aukera daiteke; adibidez, "bai". Eraztuna daukan ikasleak hitz hori esan duen edozein ikaskideri eman diezaioke eraztuna (baita ikasgelatik kanpora ere). Eta eraztuna jaso duenak gauza bera egin beharko du. Kate bat sortuko da hala.

Hasieratik esango zaie jarduera bukatzean eraztuna daukan ikasleak zigorra izango duela (zigor hori zein den esan gabe, baina ez zaiola gustatuko adieraziz; beraz, inork ez du nahiko eraztuna edukitzea). Jarduera hau egiteko egun bat edo bi izan dezakete ikasleek (hurrengo eguneko klasera bitarteko tartea, adibidez). Hurrengo klasean, ea eraztuna nork daukan galdetuko du irakasleak. Zigorrik ez da izango, baina ikasleek ez dute hori bukaerara arte jakingo.

Ariketa honen helburua sentimenduei buruz hitz egitea eta enpatia sortzea da. Jarduera bukatzean, sentitu dutenari buruz hitz egingo dugu. Halako galderak egin ditzakegu, euren sentipenak azal ditzaten:



4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordezkotako beste ekoizpenen bat proposatu ere edo proposamen bat baino gehiago egin):

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Ikasleak kazetari bihurtuko dira, ahozko ondasunaren biltzaile. Talde txikietan banatu (2-3 kide), eta talde bakoitzak adineko euskaldunen bati (amona, aitona, bizilaguna, familiako ezaguna...) elkarrizketa egingo dio, eta bere esperientzia kontatzeko eskatu: gaztelania nola/zergatik ikasi zuen,

euskaraz hitz egiteko oztoporik izan duen sekula, euskara zer den berarentzat, zer iritzi duen gaur egungo euskarari buruz (batua eta hezkuntza sistema)... Galderak guztien artean prestatuko dituzte, guztiek gauza bera galdetzeko.

Elkarrizketa bideoan grabatzea gomendatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)), gero ikasgelan ikusi ahal izateko, eta komenigarria litzateke elkarrizketatuari argazkia ateratzea ere. Ikasleek aurkezpen txiki bat prestatuko dute (elkarrizketatuaren biografia laburra, adibidez; nondik ezagutzen duten, etab.), bideoa erakustearekin batera ikaskideei azalpenak emateko.




Jasotakoarekin, hainbat lanketa egin daitezke ondoren ere. Bi aukera:

1. Grabazio guztietako pasarte onenekin ikus-entzunezkoa(k) prestatzea, sare sozialen bidez ikastetxean zein herrian zabaltzeko (lan hau egiteko bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie).
2. Bildutako testigantzak idatziz jarri, eta ondoren ikasleak narratzaile gisa jardutea, irratsaio bat sortuz. Sustatuko duguna: herriko hizkera erabiltzea, naturaltasunez eta adierazkortasunez. Adibide gisa, ikus [Leitzako irratsaio hau](#)

Ederra litzateke gero grabazioak [ahotsak.eus](#) artxibora bideratzea (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko proiektua](#)).

- *"Bestearen azalean"*. Taldeka jarri (3-4 lagun) eta ikasleek antzerki esketxak prestatuko dituzte. Lehenengo, guztien artean egoerak pentsatu eta erabakiko dituzte. Bost egoera ezberdin. Bideoan agertzen diren egoerak, eurek etxean entzundakoak edo asmatutako egoerak izan daitezke, baina denak ere euskararen zapalkuntzarekin lotutakoak. Adibiderako:

- 
- Bi gazte kalean zehar doa, euskaraz hizketan, eta pertsona batek gaztelaniaz egiteko agintzen die
 - Ume bat zigortu egingo dute, eskolan euskaraz aritzeagatik
 - Eskola-ume batzuk euskaraz kantatzen ari dira, eta atxilotu egingo dituzte

Talde bakoitzak bost egoeretako bat aukeratuko du, eta horren bueltan 3-5 minutuko antzezlan txiki bat prestatu. Horretarako, eman ditzaketen pausoak:

1. Istorioaren nondik norakoak erabaki
2. Pertsonaien izaera eta jarrerak zehaztu
3. Gidoitxoa idatzi: gertaerak eta elkarrizketak
4. Rolak banatu eta atrezzoak zein jantziak pentsatu
5. Entseguak egin
6. Ikaskideen aurrean antzeztu

Antzezlanak bideoan graba daitezke, gero guztiok batera ikusi, baloratu, hobetu beharrekoak proposatu, eta aurrerago egin ditzaketen beste antzezlan batzuekin alderatzeko. Aukera bat: beste gela batzuetara joatea, antzezlanak eskaintzera, eta han ere gaiaren inguruko eztabaida edo iritzi trukea sortzea.

- *"Mundu zabalean"*. Euskara hizkuntza gutxitua da, eta, horregatik, badakigu zer den norberaren hizkuntza erabiltzeko orduan oztupoak izatea. Inguruan ditugun munduko beste hizkuntzei begira jarriko gara. Izan ere, hizkuntza-aniztasuna hementxe bertan daukagu (Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzak jasotzen dituen proiektua ipini daiteke adibide gisa: 101l.ahotsak.eus). Zenbat hizkuntza hitz egiten dira gure herrian? Aniztasun hori ezagutaraztea izango da helburua.

Bideoan grabatuko den proiektu artistikoa izango da, elkarlanaren fruitua izango dena. Ikasleak taldeetan banatuko dira (4-5 lagunekoa), eta talde guztiek egindakoa bateratu egingo da bukaeran, emaitza bakarra osatzeko. Horretarako, beharrezkoa izango da taldeetako bat 2-3 lagunek osatutako edizio talde bat izatea (ikus-entzunezko edizioan eskarmentua duten ikasleak, bateratze lan hori egiteko prest daudenak edo bestela ikasteko gogoz daudenak; azalpenak eta ereduak emango zaizkie edizioari buruz).

Hona prozesua, pausoz pauso:



a) Hizkuntza-eskubideak eta hizkuntza-aniztasuna aldarrikatzeko hamar esaldi pentsatu eta aukeratu, guztion artean. Adibideak:

“Nire hizkuntzan hitz egitea gustatzen zait”
“Munduko hizkuntza guztiak dira ederrak”
“Hizkuntza bakoitzak mundua ikusteko era bat dakar”
“Gora hizkuntza aniztasuna!”
“Eleaniztasuna aberastasuna da”
“Nire hizkuntzan hitz egiteko eskubidea dut”
“Nik X hizkuntzan pentsatzen dut”

b) Taldeka, grabazioen lehen fasea egin. Ahalik eta hizkuntza desberdin guztietan. Honakoak jasoko dizkiote elkarrizketatu bakoitzari, bere hizkuntzan:

-Izena eta hizkuntza. Adibidez: “Mi chiamo Marco e parlo italiano”
-Hamar esaldietako bat. Adibidez: “Tutte le lingue del mondo sono belle”.
-Horrez gainera, abestera animatzen bada, abestia ere jaso.

c) Taldeka, grabazioen bigarren fasea. Jasotako esaldiak euskaraz grabatzea: ikasleek eurek egingo dute. Adibidez: “Munduko hizkuntza guztiak ederrak dira”.

d) Edizio taldeak grabazioekin ikus-entzunezkoa editatuko du, jasotakoari forma emateko. Honako egitura izan dezake, adibidez:

-Hiztunak beren izenak eta hizkuntzak esaten
-Hamar esaldiak: munduko hainbat hizkuntzatan eta ondoren/aurretik euskaraz
-Abestiak

Grabazioak egin aurretik, komenigarria da [jarraibide orokorrak](#) ezagutzea. Bideo hauek ikustea ere ondo etor daiteke, ideiak hartzeko: [Zumaia eleaniztuna](#) eta [Donostia eleaniztuna](#). Ikasleek eurek erabakiko dute bukaerako emaitzarekin zer egin: ikastetxeko beste geletan erakuts daiteke, sare sozialetan zabaldu, herri mailan aurkeztu...

- *"Gaur egunera begira".* Euskararen gaur egungo egoerari eta erabilerari buruz hausnartuko dugu. Non dago ondoen? Non du egoera kaskarrena? Taldeka jarrita ikertu dezakete, azken kale inkesta eta datu soziolinguistikoei erreparatuta. 4-5 laguneko taldeak osatu, eta talde bakoitzak probintzia bat aukera dezake. Lan txiki bat egingo dute, eta gero gelakideei ahoz aurkeztu, Prezi bezalako aurkezpen programaren bat erabilia (erabiltzen ez badakite, azalpenak eta ereduak emango zaizkie).

Adibidez: Euskararen egoera Gipuzkoan. Zein herritan erabiltzen den gehien, zein herritan gutxien, zergatiak... Esanguratsua iruditzen zaien informazio guztia. Euren iritzia ere eman dezakete.

5. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: azalpena, aurkezpena, antzezlanak, bideoz jasotako adierazpena... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea (ahozko jardunen bilakaera ikusteko). Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#)).



9. Gai: Euskararen transmisioaren etena. Euskararen historia.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskararen-transmisioaren-etena>



Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.
2. Euskararen transmisioaren etena izango dugu hizpide, gisa honetako galderen bitartez:

- *Ondorengoei euren hizkuntza ez irakastea erabakitzen dute batzuek. Zer arrazoi egon daitezke erabaki horren atzean? Noiz gertatu ohi da?*
- *Ezagutzen al duzue euskara galdu duen familiaren bat (gurasoek jakin eta seme-alabek ez)? Hala bada, zergatik gerta zitekeen (aurreiritziak, konplexuak)?*
- *1936ko gerraren ostean, zein zen euskararen egoera? Entzun al duzu inoiz debekatua egon zela? Ezagutzen duzue euskaraz egiteagatik zigortu zuten inor?*

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez: *handikixa* (handi-nahia edo handi-ustea duena), *langoa* (bezalakoa), *pekotza* (behi-gorotza, behi-kaka), *biñon* (baina), *ainitz* (asko), *ukan* (izan), *amatxi* (amona), *punitu* (zigortu), *mort pour la patrie* (aberriaren alde hilak, frantsesez)...
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.



Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu.

- Zer sentitu duzue bideoa ikustean? Eman iritzia.
- Euskara “prestigiatzeko” lan handia egin da. Noiz eta nola hasi zen “prestigiatzeko” euskara (batuaren sorrera, euskalduntzea eta alfabetatzea, euskarazko hedabideak, euskal literatura...)?
- Gaur egun euskara prestigiodun hizkuntza iruditzen zaizue ala prestigio gabea? Zergatik? Zerk ematen dio hori hizkuntza bati? Non eta zertarako erabil dezakegu euskara? Ba al dago euskaraz egin ezin den zerbaite?
- Gazteen erabilera datuak ez dira beti onak. Jakintza eta erabilera ez datoz beti bat. Ba al du zer ikusirik prestigioarekin? Zein dira euskarazko eta gaztelaniazko erreferentzia eredugarriak gazteentzat (musika, telebista, sare sozialak...)?
- Egunen batean seme-alabarik izanez gero, zein hizkuntza erakutsiko zeniekete?

Hego Euskal Herrian 1936ko gerrari -eta gerraosteko diktadurari- egozten zaio askotan euskararen transmisioaren galera. Alabaina, Iparraldean ere gertatu da galera, eta oraindik orain egoera horri buelta eman ezinik dabilta (izan ere, frantsesa da hizkuntza ofizial bakarra).

Diktadura garaiko giroa zein zen hobeto ezagutzeko, [Euskararen kontrako neurriak](#) bideoa ere ikus dezakegu; hala, orduko giroaz hobeto jabetuko dira ikasleak.

3. Garai batean baserritarra izatea ezjakina izatearekin lotzen zen, eta kaletar batzuek iseka egiten zieten baserritarrei. Azken hamarkadetan, ordea, badago baserritarren jakintza balioesteko joera bat; kaletar asko baserrira joan dira bizitzera, naturarekin harremana berreskuratu nahian...



- Gaur egun, nola dago ikusita baserrikoa izatea?
- Garai bateko aurreiritziak gaín dituta al daude?

Gai honetan sakontzeko bideo-fitxa hau ere erabil daiteke: [Baserritarrak gutxietsita](#).

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide (ikasleek aukera dezakete, eta baita ordezko beste ekoizpenen bat proposatu ere edo proposamen bat baino gehiago egin):
- ***"Zu zeu elkarrizketatzaile"***. Ikasleak kazetari bihurtuko dira, ahozko ondasunaren biltzaile. Talde txikietan banatu (2-3 kide), eta talde bakoitzak euskara berreskuratu duen pertsona bati egingo dio elkarrizketa, eta bere esperientzia kontatzeko eskatu: berak (edo bere guraso edo aitona-amonek) euskara nolatan galdu zu(t)en, zergatik erabaki zuen euskara berreskuratzea/ikastea, euskara ikasteko prozesua, euskara zer den berarentzat... Galderak guztien artean prestatuko dituzte, guztiek antzekoa galdetzeko.

Elkarrizketa bideoan grabatzea gomendatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)), gero ikasgelan ikusi ahal izateko, eta komenigarria litzateke elkarrizketatuari argazkia ateratzea ere. Ikasleek aurkezpen txiki bat prestatuko dute (elkarrizketatuaren biografia laburra,

adibidez; nondik ezagutzen duten, etab.), bideoa erakustearekin batera ikaskideei azalpenak emateko.

Jasotakoarekin, hainbat lanketa egin daitezke ondoren ere. Bi aukera:


1. Grabazio guztietako pasarte onenekin **ikus-entzunezkoa(k)** prestatzea, sare sozialen bidez ikastetxean zein herrian zabaltzeko (lan hau egiteko bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak emango zaizkie).
2. Bildutako testigantzak idatziz jarri, eta ondoren ikasleak narratzaile gisa jardutea, **irratsaio bat** sortuz. Sustatuko duguna: herriko hizkera erabiltzea, naturaltasunez jardutea eta adierazkortasuna lortzea. Adibide gisa, *ikus Leitzako irratsaio hau*



Ederra litzateke gero grabazioak ahotsak.eus artxibora bideratzea (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko ikasleen proiektua](#)).

- ***"Historia egiten"***. 60ko hamarkadatik hona euskara prestigiatzen lagundu duten ekimenak aztertuko dira. Lau-bost ikasleko taldeetan banatu, eta ikerketa txikiak egingo dituzte. Talde bakoitza gai edo arlo baten inguruan arituko da lanean, informazioa bilatzen (artikuluak, dokumentuak, elkarrizketak, albisteak, bideoak...). Aztertutako alorraren mugarriak identifikatu eta laburpena egingo dute, ikaskideei azaltzeko. Horretarako, aurkezpen txiki bat prestatuko dute.

Talde bakoitzak bere erara egingo du, eredu jakin bat jarraitu gabe (teknologia berriak erabil ditzakete, aurkezpenak egiteko programaren bat, horma-irudiak, argazkiak...). Hauek izan daitezke aztertze moduko gai batzuk, guztion artean euskararen historia hobeto ezagutzeko:

- 
- 1-Euskal literatura modernoa
 - 2-Euskaraz alfabetatzea eta euskaltegien sorrera
 - 3-Euskarazko antzerkigintza berria
 - 4-Euskarazko kantagintza berria
 - 5-Euskarazko komunikabideen sorrera
 - 6-Bertsolaritza berria eta bertso eskolak
 - 7-Euskarazko zinemagintza
 - 8-Euskarazko hezkuntza
 - 9-Sare sozialak euskaraz
 - 10-Euskararen estandarizazioa (batuaren sorrera)

Garabidek egindako Euskararen berreskurapena: hizkuntzak berreskuratzeko gako batzuk bideoa ikus dezakegu. Eta baita Gerraosteko ikastola klandestinoak bideoa ere.

- ***"Marda zabalean"***. Munduko hizkuntza gutxituei erreparatuko diegu, galbidean daudenei eta jada galdu direnei, hain zuzen ere. Ikasleak ikertzaile bihurtuko dira. Taldeka jarri, eta informazioa bilduko dute. Taldeetako batek informazio orokorra bilduko du (zenbat hizkuntza gutxitu egon daitekeen galtzeko arriskuan, zenbat hizkuntza galdu diren azken urteetan...). Gainerako taldeek, berriz, hiztun gutxi dituen hizkuntza bana edo jada galdutako hizkuntza bana hautatuko dute, eta horri buruzkoak topatu (non hitz egiten den/zen, zein den/zen egoera, zenbat hiztun dituen/zituen, galzorian egoteko arrazoiak...).

Bildutako informazioa ikaskideen aurrean azalduko dute, eta aurkezpen txiki bat prestatuko dute horretarako (mapak, argazkiak... adibidez Prezi programarekin; erabiltzen ez badakite, ereduak erakutsiko zaizkie).

- ***"Ika-mika"***. Eztabaida egingo da gelan, ikasleak taldeetan banatuta. Hauxe izan daiteke eztabaidagaia:

- Euskara "guay" da?

Seiko taldeak baldin badira, hiru iritzi batekoak izango dira, baiezkoaren aldekoak, eta beste hirurak bestekoak: ezezkoaren aldekoak (zotz eginda erabaki daiteke bakoitzaren rola zein izango den). Hirukote bakoitzak arrazoiak eta argudioak prestatuko ditu, eztabaida hasi aurretik bilduta. Besteak beste, euskarazko eta beste hizkuntza batzuetako erreferentziak erabil ditzakete (bertsolariak, musikariak, telebista saioak, kirolariak...).

Hasi aurretik, ikasleei eztabaiden ezaugarriak eta erabiltzen diren formulak edo testu antolatzaileak zein diren azaltzea komeni da (ikus [sekuentzia didaktiko hau](#), bereziki 84-85 orrialdeak), esateko modua esaten dutena bezain inportantea baita.

5. Ekoizpena partekatzea. Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: azalpena, aurkezpena, bideoz jasotako adierazpena... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea (ahozko jardunen bilakaera ikusteko). Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarteak izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#)).

10. Gai: Gerraosteko ikastola klandestinoak. Euskararen historia.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/gerraosteko-ikastola-klandestinoak>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a colorful header. Below the header are navigation buttons: 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main content area is titled 'Gerraosteko ikastola klandestinoak'. Below the title is a video player showing a woman, PePI GOROSTIDI, with the caption 'PEPI GOROSTIDI Tolosa, 1939'. To the right of the video is a metadata box with the following information:

Mailak:	DBH
Proiektuak:	EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Oroimen historikoa, Euskara
	0 puntu 5 izarreko maximotik
	0 iritzi guztira

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.
2. Ikastola klandestinoak izango ditugu hizpide, aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderen bitartez:

- *Zer dakizue garai bateko ikastola klandestinoei buruz? Non eta noiz sortu ziren?*
- *Ikastolen mugimendua 60ko hamarkadan finkatu zen, baina nola hasi zen?*
- *Zergatik sortu ziren halako ikastolak? Zein baldintzatan egiten zuten lan? Nola joan ziren hedatzen? Noiz lortu zuten legezko izatea?*

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez: *Klandestino* (ezkutukoa, isilpekoa, legezkoa ez dena), *gala(ra)zi* (debekatu), *ikuskatzailea* (inspektorea)...
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.



Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu.

- Zer nabarmenduko zenukete? Ezerk harritu al zaituzte? Eman iritzia.
- Nork sortu zituen ikastolak? Nor zen Elbira Zípitria?
- Gure herrian izan al da halako ikastolarik? Dakizuena kontatu.
- Gurasoen ausardia aipatzen dute, izan zituzten oztopoak... Zuen ustez, zer izango zen zailena?
- Gerra aurrean sortu ziren lehen ikastolak, baina 1936ko gerrarekin bertan behera geratu ziren. Nolakoa zen orduko giroa? Zer dakizue frankismoko hezkuntzari buruz? Gaian sakontzeko, ikus Euskararen kontrako neurriak
- Noíztik, zer urtetatik, da posible ikastetxe publikoetan euskaraz ikastea?

3. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide (ikasleek aukera dezakete, eta baita ordeztu beste ekoizpenen bat proposatu ere edo proposamen bat baino gehiago egin):

- **"Historia egiten".** Euskarazko irakaskuntzaren historia aztertuko dugu. Talde bakoitzak zer landu nahi duen erabaki dezala (betiere euskararen egoera zein zen azaldu beharko da). Hona hemen hainbat aukera:



Euskarazko irakaskuntza gerra aurrean
Irakaskuntza Francoren diktaduran
Ikastola klandestinoak
Euskal Eskola Publikoa
Euskarazko ikasketak unibertsitatean eta Lanbide Heziketan
Euskal Curriculuma
Herriko ikastetxeak historian zehar
Gure ikastetxearen historia
Ikastolen aldeko jaiak (Kilometroak, Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz, Ibilaldia eta Herri Urrats)
Eskola txikien festa
Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea. Korrika

Hainbat iturri erabil ditzakete ikerlana egiteko: liburuak, sasoi bateko egunkariak, Interneteko informazioa eta albisteak, antzinako argazkiak, inguruko testigantzak, ikus-entzunezkoak... Talde bakoitzak gelan aurkeztuko du egindako ikerketa, ahoz. Aurkezpenak egiteko programaren bat erabil dezakete, panel bat osatu...

Lanketarekin jarraitzeko aukera bat: aldizkari txiki bat egitea talde guztiek jasotako informazioarekin. Fotokopiatu eta beste gela batzuetan bana daiteke.

Garabidek egindako Euskararen berreskurapena: hizkuntzak berreskuratzeko gako batzuk dokumentala ere ikus dezakegu.

- **"Zu zeu elkarrizketatzaile".** Ikasleak kazetari bihurtuko dira, herriko historiaren biltzaile. Herrian euskarazko irakaskuntza bultzatzen aitzindari izandako pertsona bat (edo bi) gelara gonbidatu, eta elkarrizketa egingo diote. Galderak guztien artean prestatuko dituzte.


Elkarrizketa bideoan grabatzea gomendatzen dugu (ikus jarraibide orokorrak, enkoadre kontuak batez ere), gerora ere erabili ahal izateko, eta komenigarria litzateke elkarrizketatuari argazkia ateratzea ere. Jasotakoarekin, hainbat lanketa egin daitezke, taldeka:

1. Elkarrizketa **idatziz jarri**, eta argitaratzeko moduan ipintzea (titulu nagusia, azpтитuluua, sarreratxoa, galde-erantzunak, argazkia, argazki-oina...)
2. Grabazioa editatu eta elkarrizketatuaren pasarte onenekin **ikus-entzunezko bat** sortzea, sare sozialen bidez zabaltzeko (bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute: ereduak eman). Ikasleek off-eko ahotsa graba dezakete eta sasoi bateko argazkiak ere erabil ditzakete.
3. **Irratsaio bat** sortzea, herrian euskarazko irakaskuntzaren historia zein izan den azaltzeko. Musika eta soinu-efektuak ere erabil daitezke. Sustatuko duguna: herriko hizkera erabiltzea, naturaltasunez jardutea eta adierazkortasuna lortzea. Adibide gisa, [ikus Leitzako irratsaio hau](#).



- **"Sormena lagur"**. Ikasleek eskuko telefonoarekin euren burua grabatuko dute (horizontalean, ez bertikalean!), ikastola klandestinoei buruzko galde-erantzunekin. Ikasle batek galdera egingo du eta hurrengoak erantzuna eman. Katea osatuko dute hala.


Guztion artean pentsatuko ditugu galderak eta erantzunak. Adibiderako, galdera batzuk:

- 
- Zer ziren ikastola klandestinoak?
 - Noiz sortu ziren?
 - Zergatik sortu ziren? Zein zen euskararen egoera?
 - Ba al zuten lokalik? Non jarri zituzten ikastola horiek?
 - Nola egiten zioten izkin legeari? Zer esaten zuten?
 - Zer egiten zuten inspektorea zetorrean?
 - Andereñoek ba al zuten titulurik?
 - Nor zen Elbira Zipitria?
 - Zer ikasmaterial erabiltzen zuten gelan?
 - Elizak zer nolako papera izan zuen?
 - Eta gurasoek nola hartzen zuten parte?
 - Noiz legeztatu zituzten ikastolak?
 - Noizkoa da euskarazko eskola publikoa?

Oso errepikakorra gera ez dadin, posible da galdera baten erantzuna bi ikasleren artean ematea (bakoitzak esaldi bat, adibidez). Edo posible da baita ere dena galde-erantzunak ez izatea:


ikasleek narratzaile papera har dezakete, txandaka hitz eginez, eta galderak noizean behin tartekatu. Naturaltasuna eta bizitasuna oso garrantzitsuak izango dira. Ez dute paperean idatzita dutena irakurri behar. Ikaskideei azaltzen ari direla pentsatu behar dute. Herri-hizkera erabiltzen baldin badute, hobeto.

Helburua: ondo pasatzea eta ikus-entzunezko bat sortzea (lan hau egiteko bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie). Ikasleak beste gela batzuetara joan daitezke egin duten lana erakustera, taldeka; aurkezpen txiki bat egin dezakete:



- **"Testigantza bila."** Ahotsak.eus webgunean testigantza gehiago bilatuko ditugu, garai bateko hezkuntzari buruz gehiago jakiteko eta gertuago sentitzeko. Baldin badaude, herrikoak izan daitezke (herrian herriko gaiak ikusteko: herriko orrian sartu eta eskubiko zutabearen *Gaiak* atala klikatu). Begiratuko dituzten gaiak: Ikastolak, eskola, zigorrak, euskararen egoera...

Talde txikietan jarri (2-3 ikasle), eta talde bakoitzak testigantza bat aukeratuko du, gero ikaskideekin partekatzeko. Bideoa erakutsi aurretik, aurkezpen txiki bat egingo dute, ahoz:




- 4. **Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: azalpena, aurkezpena, ikus-entzunezkoa... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea (ahozko jardunen bilakaera ikusteko). Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean

gero eta hobeto moldatzea (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkiok: ahozkoaren ezaugarriak eta baliabideak).

11. Gai: Euskal kantagintza berria. Euskararen historia.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskal-kantagintza-berria>



Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.
2. 60ko hamarkadako musikagintza izango dugu hizpide, aurre-ezagutzak aktibatzeke, gisa honetako galderen bitartez:

- 60ko hamarkada esanda, zer datorkizue burura (mugimendu hippya, rocka...)?
- Zer dakizue "euskal kantagintza berriari" buruz? Ezagutzen al duzue Ez Dok Amairu mugimendua? Eta sasoi hartako abestiaren bat?
- 60ko hamarkadan, Frankismo garaian, zein zen euskararen egoera? Zuen ustez, musikariek nahi zutena kanta zezaketen?
- Nolakoak dira kanta tradizionalak eta nolakoak modernoak? Eman bietako adibideak.

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, *D'Elis Setze Jutges*, *La Nova cançó* (Hamasei Epailenak taldea, herrialde katalanetako “kanta berria” mugimenduarekin lotua).
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.



Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu.

Euskal kulturen aldaketa asko gertatu ziren 60ko hamarkadan. Bideoan dioten bezala, bazegoen egarri bat, iturria itxita egona baitzen luzaroan (1936ko gerra eta gerraosteko lehen urteak). Aldarrikapenak egiteko garaia zen. Kantautoreen figura sortu berria zen. Batez ere hortik jo zuen Ez Dok Amairu mugimenduak.

- *Gustatuko litzaizueke dena egiteko zegoen garaia hori bizi izana? Zergatik?*
- *Ezagutzen al zenituzten bideoan aipatzen diren musikariak? Eta bideoko abestiak? Osorik entzun ditzakegu, eta komentatu: iritziak partekatu. Ba al dute gaurkotasunik?*

Inauterietako mozerroetan, 60ko hamarkada mugimendu hippyarekin lotu ohi dugu (loreak, kanpai formako galtzak, bakea eta maitasuna...). Iruditeria hori nondik datorren ere azter dezakegu.

60ko hamarkadan sortu zen rocka ere, eta iraultza ekarri zuen musikaren mundura. Ordukoak dira The Beatles, The Rolling Stones, Elvis Presley... Arantxa Gurmendik eta bere ahizpak *Burriak* taldea sortu zuten sasoi horretan: rock abestien euskarazko bertsioak egiten zituzten (ikus testigantza). *Errobi* taldea hartu izan da lehen euskal rock taldeztat (Anje Duhaldek eta Mixel Ducau lapurtarrek sortua, 70eko hamarkadan).


- 3.** 60ko hamarkadan euskal kulturaren aldaketa handiak eman ziren: musikagintzan ez ezik baita literaturan eta antzerkigintzan ere. Hamarkada horretako beste ekimen eta mugimendu batzuk ere gogora ditzakegu. Besteak beste:



<ul style="list-style-type: none"> • Antzerkia: joera modernoak iritsi ziren (Jarrai, Goaz, Geroa...). Ikus <u>Gerraosteko antzerkia: tradizioa vs modernotasuna</u> bideoa.
<ul style="list-style-type: none"> • Euskara batua: sorrera. Ikus <u>Euskara batua eta euskalkiak</u> bideoa.
<ul style="list-style-type: none"> • Ikastolen mugimendua. Ikus <u>Gerraosteko ikastola klandestinoak</u> bideoa.
<ul style="list-style-type: none"> • Literatura: <u>Gabriel Aresti</u>ren <i>Harri eta herri</i>. Nobelagintza berria: <i>Txillardeg</i>i eta Saizarbitoria (<u>Leturiaren egunkari ezkutua</u> eta <u>Egunero hasten delako</u>).
<ul style="list-style-type: none"> • Durangoko azoka: sorrera
<ul style="list-style-type: none"> • Artista taldea: Gaur, Hemen, Orain, Danok... <u>Jorge Oteizaren Quousque Tandem...!</u> <u>Nestor Basterretxea</u> eta <u>Fernando Larrukerten film</u> esperimentalak (horien artean <u>Ama Lur</u>)
<ul style="list-style-type: none"> • Alfabetatze eta euskalduntze taldeak

- 4. Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide (ikasleek aukera dezakete, eta baita ordezkoko beste ekoizpenen bat proposatu ere edo proposamen bat baino gehiago egin):

- **"Historia egiten".** 60. eta 70. hamarkadetako kanta batzuk ezagutuko ditugu. Ikasleek (binaka edo hirunaka) bat aukera dezatela, eta lanketa txiki bat egin:



- Noizkoa da? Zein da abeslaria? Eta letraren egilea?
- Letra idatziz jarri
- Abestiaren bideoa/audioa bilatu
- Zergatik aukeratu dut? Iritzia eman (edukia, doinua, zergatik gustatzen zaizun...)



Aurkezpen txiki bat prestatu, kantari buruzko informazioarekin eta iritziarekin. Ikaskideekin partekatu (letra partekatu eta bideoa/audioa erakustearekin batera elkarrekin kanta dezakegu).


Adibide modura, hona hemen Ez Dok Amairu mugimenduko zenbait kideren kanta batzuk:

<u>LURDES IRIONDO</u>	<u>XABIER LETE</u>
<u>Ez gaude konforme</u>	<u>Habanera</u>
<u>Gaua</u>	<u>Xalbadorren heriotza</u>
<u>Askatasuna zertarako</u>	<u>Itsasoan urak haundi dire</u>
<u>Gaztedi berri zalea</u>	<u>Nafarroa arragoa</u>
<u>Hala ere</u>	<u>Izarren hautsa</u>
<u>Hitzak dira</u>	<u>Ikusten duzu goizean</u>
<u>Tiriki Tauki</u>	<u>Gizon arruntaren koplak</u>
<u>Oraindik orain</u>	<u>Ni naiz</u>
<u>Nere herria</u>	<u>Euskal Herri nerea</u>
<u>MIKEL LABOA</u>	<u>BENITO LERTXUNDI</u>
<u>Liluraren kontra</u>	<u>Zenbat gera</u>
<u>Zilbor-hesteak</u>	<u>Ez kanta beltza</u>
<u>Baga Biga Higa</u>	<u>Herribehera</u>
<u>Gernika</u>	<u>Oi lur, oi lur</u>
<u>Gure bazterrak</u>	<u>Maria Solt ta Kastero</u>
<u>Txoria txori</u>	<u>Bizkaia maite</u>
<u>Haika mutil</u>	<u>Balearen bertsoak</u>
<u>Negu hurbilak</u>	<u>Baldorba</u>

Beste autore batzuen garai hartako kantak ere aukera ditzakete. Besteak beste:

Estitxu, Antton Valverde, Julen Lekuona, Maite Idirin, Jose Antonio Villar, Pantxo eta Peio, Oskarbi, Imanol Larzabal, Gontzal Mendibil, Anje Duhalde, Oskorri, Lupe, Miren Aranburu...

- **"Sormena lagun".** Kanta lehiaketa antolatuko dugu. Ikasleek nahi duten abestia aukeratuko dute (ingelesez, gaztelaniaz, euskaraz...) eta moldatu egingo dute: letra aldatuko diote. Lehiaketako arau posibleak:




Ikasleak parte hartzera animatzeko, Wazemank taldearen bideo bat ikus dezakegu gelan (adibidez, Joselu anaiak, Negu gorriak edo Barricada).

Data bat ipiniko da lanak aurkezteko. Audioa/bideoa entregatzeaz gainera, taldeek gelan bertan ere egin dezakete erakustaldia ('kontzertua' eman), ikaskideen aurrean. Epaimahaia: ikasleek erabakiko dute nola egin; bozketa egin daiteke ikasgeletan.

- **"Sormena lagun".** Garai bateko gazteen aldarrikapenak zein ziren badakigu. Zein dira gaur egungo gazteen kezka, desirak eta aldarriak?

- Zuek, gazteok, zer daukazue esateko?
- Zein dira zuen aldarrikapenak?

Kantak sortuko ditugu, taldeka (2-3 lagun). Pauso posibleak:

- 
- Ideiak pentsatu: zer esan nahi dugu?
 - Kopla/bertsoa osatu. Horretarako, bertsotarako arbel digitala erabil dezakegu.
 - Doinua aukeratu. Doinutegia erabil dezakegu (lerro kopurua aukeratu)
 - Egindakoa gelakideekin partekatu: kantatu!

Aukera bat: koplak/bertso guztiak grabatu eta bideo-koplak sortu, horretarako guztion artean marrazkiak eginda edo irudi aproposak aurkituta (bideoak editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsi, marrazkiak/irudiak eta audioa elkartzeko).

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Ikasleak kazetari bihurtuko dira, eta musikariak elkarrizketatuko dituzte (herrikoak edo eskualdekoak badira hobeto, gertutasunarengatik). Ez Dok Amairuk berarengan eraginik izan duen ere galde diezaiokete. Hitzordua lotu, eta galderak prestatu ondoren, elkarrizketa bidez grabatzea proposatzen dugu (ikus jarraibide orokorrak). Adibide gisa ikus Jakintza ikastolako ikasleek egiten dutena: Ruper Ordorikari egindako elkarrizketa.

Ondoren, hainbat lanketa egin ditzakegu grabazioarekin, hedabideen jarduna ezagutzeko eta lantzeko (ikasle talde txoko bakoitzak lanketa desberdina egin dezake):

1. **Bideo-erreportajea** labur bat prestatu, grabatutako irudiekin (horretarako, editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsi eta adibideak eman). Sarean zabaldu.
2. **Elkarrizketa idatziz** jarri, egunkari digital edo blog baterako (titulua, azpititulua, sarrera, galde-erantzunak, argazkia, azgazki-oina... Sarean ipini.
3. **Irratsaio** baterako erreportajea/elkarrizketa gertatu, elkarrizketako audioa erabilia. Sarrera prestatu (aurkezpena) eta grabatu; musika ere erabil dezakegu. Gertuko irratiren batera bidali.

Ondo legoke grabazioak [Ahotsak.eus](https://ahotsak.eus)-era bideratzea, ahozko ondarearen artxibora (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko ikasleen proiektua](#)).

- 5. Ekoizpena partekatzea.** Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: azalpena, aurkezpena, bertsoa... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea (ahozko jardunen bilakaera ikusteko). Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarte izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#)).



12. Gai: Antzerkia: tradizioa vs modernotasuna. Euskararen historia.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/gerraosteko-antzerkia-tradizioa-vs-modernotasuna>

The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website interface. At the top, there is a navigation bar with buttons for 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. Below the navigation bar, the main content area features a video player. The video title is 'Gerraosteko antzerkigintza: tradizioa vs modernotasuna'. The video player shows a woman sitting in a chair, and a red arrow points to the video player. To the right of the video player, there is a metadata box with the following information: 'Mailak: DBH', 'Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan', 'Ikasgaiak: Euskara eta literatura', 'Gaiak: Aisialdia, Antzerkia', and '0 iritzi guztira'.

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.
2. Antzerkigintza izango dugu hizpide, aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderen eta azalpenen bitartez:

- *Gustatzen al zaizue antzerkia? Zergatik?*
- *Zer antzezlan ikusi dituzue eta zer hizkuntzatan? Zer estilokoak?*
- *Zuen ustez, euskarazko antzerkigintza noizkoa da? Gure aitona-amonek ikusten al zuten antzerkirik? Garai batean ba ote zegoen antzerki zaletasunik?*
- *Zer da antzerki tradizionala eta zer modernoa? Gaur egungo antzezlanak nolakoak dira?*

1920ko eta 30eko hamarkadetan euskarazko antzerkiaren “loraldia” deitzen zaiona gertatu zen. 1936ko gerraren ondorioz, baina, bertan behera geratu zen: euskararen kontrako jarrera nagusitu zen. Gerra ondoan, Francoren garaian, batzuek loraldi hura berreskuratzen saiatu ziren. Belaunaldi berriak, berriz, nahiago zuen modernotasuna tradizioa baino. 60ko hamarkadako giro horri buruzkoa da ikusiko dugun bideoa.

Bideoa ikusi bitartean



1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Beren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, atzerriko autoreen izenak.
4. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu.

- Gerra aurretik eta gerra osteko lehen hamarkadetan antzerkiak arrakasta handia zeukan. Zergatik (euskaraz zen jarduera bakarra zelako, telebistatik eta zinematik ez zegoelako...)?
- Gure herrian izan al zen antzerki talderik?
- Garai batean ez zuten Internetik, baina nazioartera begira zeuden. Eta orain? Kanpoko zer erreferente daukazue zuek (musika, literatura, zinema...)?
- Euskarazko jarduerak (antzerkia, musika, telesailak, literatura...) modernoak al dira? Erantzuten al diete zuen nahiari eta beharrei?
- Tradizioa vs modernotasuna. Aldaketak eztaba da dakar sarri. Orain ere bai? Ezagutzen al duzue antzeko kasurik (dantzak, alardea...)?

3. 60ko hamarkadan euskal kulturaren aldaketa handiak gertatu ziren: antzerkian ez ezik baita literaturan eta musikagintzan ere. Gaian sakontzeko, [Euskal kantagintza berria](#) bideoa ere ikus dezakegu.

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide (ikasleek aukera dezakete, eta baita ordezkoko beste ekoizpenen bat proposatu ere edo proposamen bat baino gehiago egin):

- ***"Zu zeu elkarrizketatzaile"***. Ikasleak kazetari bihurtuko dira, eta antzerkigintzan aritu izan diren edo dabilzan aktoreak elkarrizketatuko dituzte (herrikoak edo eskualdekoak badira hobeto, gertutasunarengatik). Hitzordua lotu, eta galderak prestatu ondoren, elkarrizketa bideoz grabatzea proposatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)). Adibide gisa ikus Txantxiku ikastolako ikasleek Goiena telebistan [Iker Galartzari egindako elkarrizketa](#). Antzeko zerbeit egin dezakegu, baina modu xumeagoan, eskura ditugun baliabideekin; adibidez, Jakintza ikastolako ikasleek egiten duten gisara: [Elena Iruretari egindako elkarrizketa](#).

Ondoren, hainbat lanketa egin ditzakegu grabazioarekin, hedabideen jarduna ezagutzeko eta lantzeko (ikasle talde txoko bakoitzak lanketa desberdina egin dezake):


1. **Bideo-erreportajea** labur bat prestatu, grabatutako irudiekin (horretarako, editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsi eta adibideak eman). Sarean zabaldu.
2. **Elkarrizketa idatziz** jarri, egunkari digital edo blog baterako (titulua, azpтитulua, sarrera, galde-erantzunak, argazkia, argazki-oina... Sarean ipini.
3. **Irratsaio** baterako erreportajea/elkarrizketa gertatu, elkarrizketako audioa erabilia. Sarrera prestatu (aurkezpena) eta grabatu; musika ere erabil dezakegu. Gertuko irratiren batera bidali.

Ondo legoke grabazioak [Ahotsak.eus](#)-era bideratzea, ahozko ondarearen artxibora (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko ikasleen proiektua](#)).

- ***"Sormena lagun"***. Sormena eta irudimena erabili, eta gidoilari bihurtuko gara. Ondoren, guk sortutako testu horiek antzeztuko ditugu. Gaia(k) aukeratzeko, *brainstorming* edo *idea*

ekaitza egingo dugu. Gaia(k) eta egoerak asmatuko ditugu guztion artean. Umorezko esketxa edo antzezlan laburra izan daiteke formatu egokiena, iraupen laburrekoa.

Zer eta nola egingo dugu? 4-5 laguneko taldetxotan banatu, eta:

- 
- Egoera pentsatu/aukeratu: Zer kontatu nahi dugu (istorioa)? Eta nola (pertsoneiak)?
 - Pertsoneien ezaugarriak eta jarrerak zehaztu. Muturreko pertsonaiak (oso markatuak) aukeratzeak antzezpena erraz dezake (baina adi ibili behar dugu rol sexistekin!).
 - Gidoitxoa prestatu: pertsonaien arteko elkarriketa idatzi.
 - Pertsoneien karakterizazioa landu (arropa, osagarriak, jarrerak, hitz egiteko modua...)
 - Testua ikasi, eta entseatu, nor bere pertsonaiaren azalean sartuta.
 - Bestelakoak: eszenografia pentsatu (sinplea baina eraginkorra); soinua eta argia ere kontuan izan (beharrezko ikusiz gero, grabazioaren bat eraman daiteke; edo ahoz egin: kantatu, soinua egin...).
 - Gelakideen aurrean antzeztu.

Antzerki esketxak bideoz grabatzea proposatzen dugu, gero ikusi eta aztertu ahal izateko. Aukera bat: zer eta nola hobetu erabaki (ikasleek eurek), praktikan jarri eta antzezlan berritua egitea; bigarrena ere grabatu egingo dugu, biak konparatu ahal izateko eta hobekuntzeak jabetzeko. Hona hemen egindako lana ebaluatzeko kontuan izan ditzaketen irizpide batzuk:

	BAI / EZ	ZER HOBETU
Istoria/esketxa ondo ulertu da?		
Ondo entzun da? Pertsonaiek ondo, argi, ahoskatu dute?		
Pertsonaien karakterizazioa egokia izan da?		
Pertsonaiak ondo mugitu al dira eszenatokian zehar?		
Jantziak aproposak izan dira?		
Elkarrizketek naturalak eman dute?		
Dekoratua aproposa izan da?		
Soinuak eta argiak edukia hobeto adierazten lagundu dute?		
Gustatu zait?		

Beste aukera bat: jada sortuta dauden antzerki-testuak erabiltzea. Hona hemen euskarazko hainbat antzezlan: <http://mikelmartinez.eus/teatrotestuak/>

- *"Bestearen azalean"*. Ikasleak antzezle bihurtu, eta besteen azalean ipiniko dira. Horretarako, ipuinak erabiliko ditugu. Bi aukera proposatzen ditugu (lehenengo bat egin daiteke eta gero bestea, bi dramatizazio modu ezagutzeko), 4-5 laguneko taldeetan egiteko:

1. Bideo-ipuina egin. Ahotsean jarriko dugu arreta, ez gorputz-adierazpenean. Izan ere, bideo-ipuinak sortuko ditugu, eta audioa izango da oinarria (ikasleen ahotsa, ez irudia). Bideo-ipuin adibideak: [Kokoriko txitatxoa](#), [Juan eta otsoa](#) eta [Ausarten kluba](#). Segitu ditzakegun pausoak:

- Gustuko ipuin labur bat aukeratu, elkarrizketa dexente dituena (moldatu ere egin dezakegu).
- Narratzailea eta pertsonaiak banatu.
- Narratzailearen eta pertsonaien hitz egiteko modua zehaztu: erabili beharreko ahotsaren tonua, abiadura eta erritmoa (adibidez, otso gaiztoa: ahots sendoa eta segurtasuna erakusten duena).
- Irakurketa dramatizatu egingo dugu. Behar beste entseatu ondoren, audioa grabatuko dugu.
- Marrazkiak egingo ditugu, ipuina janzteko, audioa kontuan hartuta.
- Bideoa prestatuko dugu, marrazkiak eta audioa batuta. Posible da musika eta efektuak sartzea ere (bideo ediziorako, oinarritzko programaren bat erabiltzen erakutsi eta ereduak eman).

2. Ipuina antzezlan bihurtu. Ipuin bat aukeratu eta antzezlan bihurtuko dugu, eta ondoren antzeztu. Gorputz adierazpena eta ahotsa, biak izango ditugu kontuan. Segitu ditzakegun pausoak:

-Ipuina antzezlan bihurtu. Narratzailea desagertu egingo da, eta pertsonaien mugimenduak eta elkarrizketak bihurtuko dira istorioaren oinarri. Adibiderako, ikus Getxoko [Berritzegunekoek](#) Joseba Sarrionandiaren ipuin batean oinarrituta egindako [lanketa hau](#)


-Pertsonaiak banatu eta karakterizazioa landu (arropa, osagarriak... / keinuak, jarrerak, hitz egiteko modua, nola mugitu...)

-Testua ikasi, eta entseatu, nor bere pertsonaiaren azalean sartuta.

-Bestelakoak: eszenografia pentsatu (sinplea baina eraginkorra); soinua eta argia ere kontuan izan (beharrezko ikusiz gero, grabazioaren bat eraman daiteke; edo ahoz egin: kantatu, soinua egin...).

-Dena prest dagoenean, gelakideen aurrean antzeztu.

- **"Historia egiten".** Bideoan autore mordoak aipatzen dituzte, euskarazko antzerkigintzan eragina izan zutenak: euskaraz idatzi zuten batzuk eta euskarara itzuli zituzten beste hainbat antzerkigile. Ezagutzen al dituzue? Autore horiek zein ziren ikertuko dugu, binaka/hirunaka jarrita. Bi galdera hauen erantzunak bilatuko ditugu:



1-Toribio Alzaga	2-Marcelino Soroa
3-Jacinto Carrasquedo	4-Rabindranath Tagore
5-Antonio Buero Vallejo	6-Federico García Lorca
7-Albert Camus	8-Friedrich Dürrenmatt
9-Eugène Ionesco	10-John B. Priestley
11-Arthur Miller	12-Henrik Ipsen
13-Berthold Brecht	14-Tennessee Williams

Ikasgelan ahozko aurkezpen txikiak egingo dituzte ikasleek (Prezi bezalako programak erabil ditzakete, autorearen argazkiarekin eta datu nagusiekin).

Autore horietako batzuk gaur egun ere modernotzat hartzen ditugu; adibidez, Ionesco eta absurdoaren antzerkia. Abeslari burusoila antzezlaneko zatitxo bat irakur dezakegu, eta ondoren komentatu, ea zer iruditzen zaien.

5. Ekoizpena partekatzea. Azken ekoizpenaren emaitza ahoz ematea lehenetsiko da, emaitza dena delakoa dela ere: aurkezpena, ikus-entzunezkoa, antzezpena... eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea (ahozko jardunen bilakaera ikusteko). Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarte izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: ahozkoaren ezaugarriak eta baliabideak).

ESPAZIOEN ANTOLAKETA

Proposamen pedagogiko gehienak gelan landuko dira, eta espazioa antolatzeko orduan gertuko giroa sortzen saiatuko gara. Talde-lana sustatuko dugu, eta ikasleen autonomiari garrantzia emango diogu. Espazioa talde-lanerako era egokian antolatuko da betiere (talde txikiak edo handiak diren, horren arabera). Ikasle guztiek parte hartzeko aukera bera dutela ziurtatuko da, eta espazioaren antolaketa ez dela horretarako oztopo. Espazioari dagokionez, aintzat hartuko da irakaslearen eta ikasleen arteko harremana ere, irakaslea fisikoki ikasleen gainetik ez jartzeko.

Lanketak hala eskatzen duenean (ikasleek beren esperientzia pertsonalak kontatzeko, adibidez), gela modu berezian girotuko dugu: mahai eta aulkiak albo batera eraman, irakaslea zein ikasleak lurrean eseri, argiztapena zaindu (argi motela erabili, kandelak)... Kontuan izan behar dugu sutondoan egiten zen transmisioa ikasgelara eramatea dela helburua, eta horretarako giro aproposa sortzea garrantzitsua dela. Testuinguru egokia sortzea, alegia. Ikasleak ez dira epaituak sentitu behar, hitz egiteko eta entzuteko gogoia izan behar dute. Eroso sentitu behar dira. Etxean bezala.

Ikasleek beren kabuz informazioa lortzeko edo ekoizpenak prestatzeko egokia izan daiteke IKTrako baliabideak dituen gela edo liburutegia erabiltzea. Bestalde, ikastetxetik kanpo informazioa biltzea ere bultzatuko da, gertuko errealitatea ezagutzeko: etxean, kalean... Ahozkotasunean oinarritutako proiektua den heinean, inguru hurbilean testigantzak biltzeari garrantzia emango zaio.

Komeni denean, jolaslekua edo kanpoko eremuren bat ere erabil daiteke lanketa batzuk egiteko (mugimendua eskatzen dutenak, jolas girokoak, leku zabalagoa izateko).



DENBORALIZAZIOA

Irakasleak erabakiko du zenbat denbora eskaini lanketari. Izan ere, irakasleak erabakiko du zer jarduera egingo dituen ikasleekin, eta zenbat denbora beharko duen horretarako.

Irakasleak jarduera guztiak bere egitea erabakitzen baldin badu, orduan proposamen pedagogikoak Sekuentzia Didaktiko bihur daitezke. Fitxa Pedagogiko guztiak ez dira berdinak, eta lanketarako denbora ere diferentea izan daiteke, baina jarduera guztiak aurrera eramanez gero, lanketa 4-6 ordukoa izango dela aurreikusten dugu:



- 1. saioa.* Bideoa ikusi aurretik egingo diren jarduerak. Bideoa ikustea.
- 2. saioa.* Bideoa ikusi ondorengo jarduera batzuk (1. saioan ere has gaitzke jarduerekin).
- 3. saioa.* Bideoa ikusi ondorengo beste jarduera batzuk.
- 4. saioa.* Ikerketa, informazio bilketa edo lanketa, ekoizpena gauzatzeko (kasuan kasu, saio hau ikastetxetik kanpo egin daiteke).
- 5. saioa.* Ekoizpena partekatu eta grabatu.
- 6. saioa.* Grabazioak ikusi eta ebaluazioa egin

Baliabide teknikoak

- IKTak. Eskola 2.0 egitasmoko baliabideak eskura izango ditugu: arbel digitala gela osorako eta ordenagailu eramangarriak ikasle guztientzat.
- Bideoak pantaila handian ikusiko dira. Pantaila, ordenagailua, Interneterako konexioa, proiektorea eta bozgorailuak beharko dira. Arazo teknikoak izanez gero, posible izango da ikasleek beren ordenagailu eramangarrietan ikustea bideoa. Aurikularrak beharko dituzte.
- Informazioa bilatzeko Internet erabiliko dugu. Konexioa izatea ezinbestekoa izango da.
- Informazioa jasotzeko eta materiala ekoizteko tabletak, bideokamerak, ordenagailuak, etab. erabiliko dira.

- Gaiak aurkezteko, dokumentuak sortzeko eta ekoizpenetarako sarean aurki ditzakegun aplikazio libreak erabiliko ditugu (Google Drive). Zenbaitetan bideoak eta ekoizpenak partekatzeko proiektorea, bozgorailuak eta ordenagailua beharko dira.

Materialaren egileak

Ikasmaterial hau Badihardugu Euskara Elkarteak sortu du, www.ahotsak.eus proiektua oinarri hartuta.

- **IDOIA ETXEBERRIA ELORZA.** Edukien diseinuaz eta garapenez arduratu da. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Donostian, Kazetaritza Leioan eta Itzulpengintza Masterra Gasteizen. Gidoiak, zutabeak (Euskaldunon Egunkaria, Berria, Goiena) eta oroimen historikoari buruzko lanak idatzi ditu, eta literatura ere bai (2012. urteko Lizardi Saria). 4. Hizkuntza Eskakizuna dauka. Badiharduguk hezkuntza arloan dituen proiektuen eta ikasgelan webgunearen arduraduna da, eta besteak beste “Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiekturako ikasmateriala prestatzen jardun du (EIMA 2.0).
- **AINZANE AGIRREBEÑA UBERA.** Proiektu honetako aholkulari pedagogikoa eta elkarteko koordinatzailea da. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Gasteizen eta irakaskuntzarako gaitasun agiriaren jabe da. Badihardugu elkarteko koordinatzailea da. Hainbat herritako hizkera jaso eta aztertu du, tartean, Eibar, Beasain, Zarautz eta Zumaia. Ikasmateriala prestatzen jardun du (EIMA 2.0).
- **HAIZEA ODRIA ESNAL.** Bideoen edizioaz arduratu da. Arte Ederretan lizentziatua, gehienbat ikusentzunezkoen munduan aritu da. Ekoiztetxe eta herri telebistetan bideo-editore, diseinatzaile eta kamaralari gisa ibili da. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko bi ediziotan ere parte hartu du, bertako telebista eta web ofizialerako bideoak sortzen. Ahotsak.eus proiektuan bideo-editore eta elkarriketazaile moduan dihardu. Ikasmateriala prestatzen jardun du (EIMA 2.0).
- **IKER UGALDE ALBERDI.** Bideoen edizioaz arduratu da. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua, HUHEZIn. Hainbat proiektutan aritu da lanean, besteak beste Hamaika Telebistan eta Eusko Jaurlaritzako Kulkurklik proiektuan. Ikasmaterialerako bideoak editatzen jardun du (EIMA 2.0).
- **IRATI LIZEAGA ELIZALDE.** Edukien transkripzioekin lagundu du. Euskal filologia ikasketak egin ditu Gasteizen.
- **JOSUNE ZABALA ALBERDI.** Aholkularitza eskatu diogu, ahozkotasanari eta ahozko genero-testuei dagokioenean bereziki. Euskal Filologian doktore da. EHUn eta HUHEZIn irakasle, ikertzaile, koordinatzaile eta aholkulari moduan ibilia, Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoko partaide ere izan da. Ahozko testu-generoetan aditua. Hezkuntzan ahozkotasuna lantzeko, ikasmateriala sortzen eta irakasleak trebatzen jardun du.

Bibliografia

- Amonarriz, Kike (2002). *Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran*. Ikastolen Elkarte: IX. Jardunaldi Pedagogikoak: 417-465
- Amonarriz, Kike. (2012). *Txistee euskaraz ez dute graziarik, Campusa 79 zk. 39.or.*
- Askoren artean (2013). *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz
- Barquín, Amelia (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Emakunde. Gasteiz
- Bassols, M. (2003). *Modelos textuales teoría y práctica*, Octaedro ediciones.
- Bronckart, J.P. (2004) *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*. Fundación infancia y aprendizaje. 2004, Madrid.
- De Pietro, J.-F. & Dolz, J. (1997). *L'oral comme texte: comment construire un objet enseignable?*. *Education et recherches*.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1997). *Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona*.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral*. Paris, ESF.
- Dolz, J., Noverraz, M. & Schneuwly, B. (2001). *Séquences didactiques pour l'oral et pour l'écrit. Notes méthodologiques* (vol. II, 3^e/4^e). Bruxelles, De Boeck.
- Dolz, Joaquim; Vilá, Montserrat (1997): *L'oral formal*, Articles.
- Dolz, J., Schneuwly (1997). *Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona. Textos de didáctica de la lengua y literatura*. 11, 77-98.
- Eizmendi, I. (2015). "Eragileen sarea osatzen. Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragitera bideratutako eredu baten azalpena", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 94: 71-91.
- Esnaola, I. (2000). [Gazteak eta erregistro kolokiala](#), *HIK-HASI*, 49.
- Euskararen Aholku Batzordea (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa: Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2007). *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza Curriculumean*. 218. alearen gehigarria.
- Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila (1993). [Euskal Autonomi Elkarteko emakumeen oinarrizko eskubideen gidaliburua](#). Emakunde, Gasteiz.
- Erriondo L., Bilbao B., Garagorri X., Idiazabal I., Iztueta P (2003). *Euskal Dimentsioa Curriculumean. Oinarrizko irizpideak, norabideak eta lorbideak*. Euskal Eskola Publikoa Gaur bihar. Gasteiz
- Garcia-Azkoaga, I.M. (2015). Ahozko euskara, ikerketarako unibertso bat, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*.
- García-Azkoaga, Ines. 2015. *Ahozko euskararen erabilera eta eskola. Zein ahozkotasun irakatsi?* <http://www.euskonews.com/0701zbk/gaia70103eu.html> Euskonews. Eusko Ikaskuntza.
- HEZIBERRI 2020: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-hezi2020/eu/>

- Ibarra, Orreaga (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. N.U.P. Iruñea
- Idiazabal, I. (1990). *Hizkuntzaren psicopedagogía. Testu motak*. Labayru Ikastegia. Bilbo
- Idiazabal, I. eta Garcia-Azkoaga I.M.: *Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza*. Bilbao, EHU.
- Kagan, S. (1999). *Cooperative Learning. San Clemente: Resources for Teachers*.
- Medgyes, P. (2012). *Laughing Matters: Humour in the Language Classroom*. Cambridge: Handbooks for Language Teachers.
- Lledó, Eulalia (2008). *Hezkuntzan erabiltzeko hizkuntza-jarraibideak*. Emakunde. Gasteiz
- Pavón Amaia, Zuberogoitia Aitor (2011). *Leintz bailarako nerabeak eta ikus-entzunezko edukien kontsumoa, digitalizazioaren garaian*. Uztaro 78, 31-49 orr. Bilbo
- Rincón, Ana (1997). *Ikastetxearen hezkidetzaren eredu egiteko gida. I tomoa* Emakunde. Gasteiz
- Rincón, Ana (1997). *Ikastetxearen hezkuntza eta curriculum proiektua egiteko baliabideak. II tomoa* Emakunde. Gasteiz
- Rincón, Ana (1998). *Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko konbentzioa eta gomendioak*. Emakunde. Gasteiz
- Sanchez Carrion, J.M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Lizarra.
- Soziolinguistika Klusterra (2011). *Hizkuntzen ahozko kale-erabilera. Euskal Herriko VI. neurketa*.
- Soziolinguistika Klusterra (2013). Arrue Proiektua. Ebaluazio diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza-erabilerari buruzko datuak (LH4 eta DBH2) <http://www.soziolinguistika.org/es/arrue/2011txostena>.
- Zalbide, Mikel (2002). *Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?*. Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak. Ikastolen Elkarte. Donostia
- Zuazo, Koldo (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Elkarlanean. Donostia





Ikasmaterial honek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren onespena dauka.
2018/09/27

Errolda-zenbakia: 07880